

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko otsailaren 21a / 530. zenbakia



IGERILEKUA ESTALITA
Martxo erdialderako zabalduko dute

ELKARRIZKETA: MARI JOSE ARANBURU HISTORIALARIA/7 • ZIKLOTURISTAK: DENBORALDIA, HASTEAR/10

AZALA: INAKI ITURBE / JATORRIZKO ARGAZKIA: MONIKA BELASTEGI



SOINUZ BLAI

Musikarekin busti nahi?

Goitb
Goiena Telebista

**Ikusiko
duzu!**

Eguenetan eta egubakoitzetan,
21:15ean.

Aurkezleak
Maite Albes
Ugutx Usandizaga

ATREBENTZIAEZPADA/ Tabernetan, pintxuak tapauta ala tapau barik? Zuk ze nahixago dozu?




JOVITA FERNÁNDEZ
45 urte

Duda barik, tapauta. Tapauta ez baldin badare ez ditud jaten. Nazkia emoten dost: jentia pintxo onduan berbetan, tabakuan keia, ez-talak... Dana doia pintxuen gainera.



ELENA MUXIKA
60 urte

Nahixago dot tapauta baldin badare. Jentia berbetan, erretzen... Nik uste dot baktería danak gainera jungo jakuela. Dana dala, tapau barik daren tabernetan be jaten ditud.



JOSE MARI TELLERiarTE
56 urte

Nahixago dot tapauta egotia. Ez baldin badare be jaten ditud, baiña gustorago jango nittuzke tapauta egonda. Garbittasun haundixagua izango zan tapauta egon ezkeru.



BLANCA ETXARRI
59 urte

Nahixago dot pintxuak tapauta egotia: usaiñak, keiak, jentia berriketan... Tapauta garbixagua pentsatzen jat. Dana dala, tapauta ez badare be jaten ditud.



YOLANDA ZUAZO
39 urte

Edozein modutan be jan egitten ditud, baiña nahixago dot tapauta baldin badare. Garbittasun sentsaziño haundixagua emoten dost tapauta baldin badare.



FELIX GARITANO
64 urte

Nik nahixago dot tapauta egotia. Zikiña pentsatzen jat bestela: jentia ez-tulka, beste batzuk purua erretzen... Dana dala, tapauta ez egon arren batzutan jaten ditud, toki batzutan.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK IA HIRU ASTE BATU BARIK Ia hiru aste pasatu dira saihesbidean irudiko lur-jausia gertatu zela. Harriak ez daude errepidean, baina gutxi falta zaie horretarako; inguruen jarri zituzten ikonoak, behintzat, hara eta hona dabilta ibilgailuek jo egiten dituztelako. Zeren zain daude garbitzeko? Behera etorritako lur hori oraindik ere beherago etortzea ez litzateke arraroa izango. /M.B


BESTEKE SANA



Ulertzen ditut besteen biktima sentitzen direnak, pertsona maiteak galdu dituztenak,

jazartuta sentitzen direnak. Nola ez ulertu! Biktima izan ziren, esaterako, Erriberako bide ertzetan geratu eta han jarraitzen dutenak. Biktima atzerriko epaitegietan auzipetutako Santi eta Josu. Biktima dira Andoingo zinegotziak; izan ere, jendetza handiak setiatuta daude, herriak jarri zituen tokitik kentzeko. Jendetza hori ere ez dut gorroto. Ziur nago euren burua gorroto dutela. (...) Gorrotoz gaixorik, Euskal Herrian egin dituzten presoei ikasteko eskubidea kendu nahi diete. Nota onak ateratzen dituztelako, soilik. Ikastea eta intelgentzia ere gorroto dute. Eta arrazistak ere badira. UNEDen lepo egin nahi diete sabotajea ikasketei, baina Bergaran daukaten egoitzak parte hartu barik. Badaezpada. Erridikuluraino gorroto gaituzte. Eurentzat okerrago. **MARTIN GARITANO / Kazetaria 'Gara' / 03-02-18**

BERAIEKDIÑO / Iñigo Garitano



Pentsamendu bakarraren basamortua

Azken urteotan pentsamendu bakarra gure artean nagusitzen ari dela entzuten dihardugu. Baina, zer da hori? Zer nolako eragina du korronte horrek gure bizitzetan? Gure artean, tamalez, aspalditik bizi dugun egoera latz honetan sarriegi ikusten ari gara horren erakuspenak. Baina gaurkoan hemendik kanpoko bi adierazleren aipamena egin nahi dut: bata, Galizian sortu den Nunca mais plataformak jaso dituen irain eta salaketak, eta bestea, Iraken aurkako gerra hotsen aurrean Estatuko zinema munduan protesta sinbolikoa aurrera eramane duten artistei emandako tratua. Bi kasu horietan agerian gelditu da aniztasuna aldarrikatuz bide ofizialek apur bat besterik ez desbideratzen direnek espero dezaketena. Eta hori bi adibideetan erabilitako bideak guztiz legezkoak eta leunak izan direla: Nunca mais plataforma erabiltzen ari den

bidea, protestaldi baketsua besterik ez da; eta zine munduko jendearen kasuan, zer esan: merezitako hainbat sari jaso duen zine zuzendari espainol batek esan duen moduan, kezagarria da benetan "boy scout" en gisako konsigna batek (Gerrarik ez), Goya sarien festan eta Madrilgo Diputatuen Kongresuan Estatu Espainiarreko aktore eta aktorea ospetsuenak erakutsi zituztenak, horrenbesteko zalaparta sortzea.

"Pentsamendu bakarra gure artean nagusitzen ari dela entzuten dihardugu. Baina zer da hori?"

Pentsa aniztasunaren izenean gaur egungo gizartearen eredu sakonean zalantzen jarri lezakeen mugimendu batek zer nolako tokia izango lukeen pentsamendu bakarraren basamortu honetan. Adibideak hemen ezagutzen ditugu. Hala eta guztiz ere, itxaropentsua da noizbehinka aire freskoa dakartzaten planteamenduak egiten dituzten gizakiak oraindik existitzen direla sumatzea.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK / 5

KIROLAK / 11

KULTURA / 12

Kanpoko igerileku txikia

Dagoeneko estali dute eta aldagelak ere jarrita daude. Martxo erdi aldera zabalduko dute.

Senior mailako saskibaloia

Bergara KEko senior mailako saskibaloia taldeak Santo Tomasen aurka jokatu du zapatuan.

Aratusteetako kontzertua

Hilaren 28an izango da eta sarrerekin batuko den dirua Josu Cifuentesi laguntzeko izango da.

AKATSAK ZUZENTZEN

Bergara KEko kadete taldeko entrenatzaileak Mikel Etxeberria eta Fernando Moretón dira eta Lacor taldekoak Iker Barbero eta Igor Urisabel; ez, aldrebes, aurreko astean argitaratu genuen bezala.

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Aritzuolako
Udala




Elgetako
Udala

ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN

Arantzabalek Realarekin debuta egin zuen Coruñan

Agustin Arantzabalek Realarekin debuta egin zuen Coruñan 1993ko otsailaren 21ean. Hasierako hamaikakoa jarri zuen Toshackek, eta partidu osoa jokatu zuen Arantzabalek, 10 zenbakiarekin. Debuta ez zen goxoa izan, Realak Deportivo liderraren aurka 5-1 galdu zuen-eta.



GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 21
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
- ZAPATUA, 22
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- DOMEKA, 23
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- ASTELEHENA, 24
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
- MARTITZENA, 25
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
- EGUAZTENA, 26
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15
- EGUENA, 27
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK
Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 76 53 40
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozako medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRAIOAK
Taxiak 943 76 19 50

- UDALA
Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kirolegia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK
Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Erretiratuaren etxea. Bergara 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuaren elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK. 943 76 05 18
Udal Euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|--|---|
| San Pedro
Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00. | Labegarieta
Domekak: 11:00. |
| Sierbak
Lanegunak: 19:15.
Zapatuak: 19:00.
Domekak: 11:30, 13:00. | San Lorentzo
Zapatuak: 20:00. |
| Osintxu
Domekak: 12:30.
Zapatuak: 19:00. | Angiozar
Domekak: 11:30. |
| Elosu
Domekak: 10:30. | Moja Zaharrak
Lanegunak: 19:00.
Zapatuak: 11:00. |
| Ubera
Domekak: 10:30. | Mizpirualde
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30. |
| San Juan
Domekak: 11:00. | Antzuola
Domekak: 09:00, 11:30. |
| Elorregi
Domekak: 10:30. | Uzarraga
Domekak: 10:00. |
| URTE-MEZAK
Santa Marina (Sierbetan)
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean. | Elgeta
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 19:30.
Domekak: 12:00. |
| San Pedro
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean. | |

OHARRAK

JOSU CIFUENTESEN ALDEKO ZOKKETA

Josu Cifuentes gaztetxoak jaso behar duen tratamendua ordaintzen laguntzeko, haren familiak eta lagunek hiru saski zozketatuko dituzte. Txartelak herriko tabernetan daude salgai. Era berean, bi kontu ireki dituzte, Euskadiko Kutxan bata eta Caja Rural de Navarran bestea.

ODOL ATERATZEA

Eguaztenean, otsailaren 26an, odol ateratzea egingo dute Seminarioko lokalean, 18:30ean hasita.

RACING-REALA IKUSTERA JOATEKO IRTEERA

Martxoaren 16an Santanderrren Racing-Reala partidua ikustera joateko irteera antolatu dute Realzale batzuek. 10:00etan irtengo dira, frontoitik. Bidaiaren prezioa 12 euro da (sarrera aparte). Izenematea, Erreki tabernan, 943 76 38 51 telefono zenbakian.

IKASTAROAK KZGUNEAN

Irizar jauregiko lehenengo solairuan dagoen KZGuneak herritar guztiendako Informatika ikastaroak eskaintzen ditu. Besteak beste, Interneten nabigatzeko eta prestakuntzako ikastaroak antolatu dituzte. Argibideak: 943 76 73 24.

JARDUNEN AGENDA

SUKALDARITZA ETA SEXUALITATE IKASTAROAK
Jardunek antolatuta, Sukaldaritza ikastaroa egongo da bihar, zapatua, eta etzi, domeka, Arrizurin, 16:00etan. Bestalde, 12 eta 16 urte artekoendako Sexualitate ikastaroa egongo da bihar, zapatua, Udal Euskaltegian, 16:00etatik 20:00etara.

URBANOEN ORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildiko okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

BERTAKO BERBAK / Juan Martin Elexpuru

"Txatata"

Edozein materialekin egindako adabakia, ipinkia, txaplata. — *Egur puxketa bat ero, beste erozer gauza, txataltxo bat.*



ASTEKO FILMAK


'EL PIANISTA'

ZUZENDARIA: ROMAN POLANSKI. AKTO-REAK: ADRIEN BRODY, THOMAS KRETSCHMAN.

HARIA. II. Mundu Gerrako urte gogorretan Varsoviako ghetto-ko bizimodua jasotzen da lan honetan. Roman Polanskiren filmak Oscarretarako hainbat izendapen izan ditu.

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 16:45ean, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 16:45ean, 19:30ean eta 22:30ean; eta astelehenean, 19:30ean (ikuslearen eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●



'FELICES DIECISEIS'

ZUZENDARIA: KEN LOACH. AKTOREAK: MARTIN COMPSTON, WILLIAM RUANE.

HARIA. Ken Loach zuzendari britainiarrak (*Mi nombre es Joe, La cuadrilla*) Glasgow hirian ginetu du azken filma. Liam-ek 16 urte bete behar ditu. Ama kartzelatu bizi izateko itzaropena daukate eta horretarako dirua lortu behar dute. Baina horrek eragozten asko sorraraziko die...

TOKIA ETA ORDUA. Eguenean, hileren 27an, 20:00etan. Zinekluba

PUNTUAZIOA: ●●●●●

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09

EDEL
TAPIZDENDA

Etzerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

GIZARTEA/ Aurten, 19.989 euro izendatu ditu Udalak laguntza horietarako, eta eskaera epea martxoaren 21ean amaituko da

Zabalik da Gizarte Zerbitzuetan diharduten taldeendako dirulaguntzak eskatzeko epea

MONIKA BELASTEGI

Gizarte Zerbitzuen arloan lan egiten duten elkarreendako 2003ko dirulaguntzak banatzeko oinarriak onartu ditu Bergarako Udalak. 19.989 euro izendatu ditu aurten laguntza horiendako, eta eskaerak egiteko epea aste honetan bertan zabaldu dute.

Urtarrilaren 23an onartu zituen baldintzok Gobernu batzordeak, eta aste honetan zabaldu dute eskaerak egiteko epea. Gizarte Zerbitzuen arloan diharduten irabazi asmorik gabeko elkarteek zuzenduta daude dirulaguntza horiek, eta helburua da elkarrekin bultzatzea, herritarren arteko elkartasuna bultzatzea eta herritarrek parte hartzea zailtasun sozialak dituzten herritarrek integratzeko antolatzen diren ekintzetan.

Dirulaguntza horiek jasotzeko ezinbesteko baldintza da legez araututako elkarteak izatea, irabazi asmorik gabekoa eta gizarte zerbitzuen arloan jardutea. Gainera, zerbitzu horiek Bergaran, Debagoiengan edo Gipuzkoan garatu beharra dago Udaleko laguntzaren onuradun izateko.

Horrez gainera, elkarrekin jarduerak honako baldintzak bete beharko dituzte: alde batetik, zuzenean erantzutea gizartearen integratzeko zailtasunak dituzten udalerriko edozein talderen eskaerei; bestetik, herritarrengan elkartasuna bultzatu beharko dute, gizartearen integratzeko zailtasunak dituzten herritarren integrazioa errazteko; eta, azkenik, integrazio arazoak dituztenen parte-hartzea ere bultzatu beharko dute elkarrekin antolatutako jardueretan.



ARTXIBOA

Bergarako Odol Emaileen Elkarteak jaso zuen iaz Gizarte Zerbitzuetan diharduten taldeendako dirulaguntza, beste sei elkarterekin batera.

ESKAERAK EGITEKO AZKEN EGUNA, MARTXOAREN 21A

Eskaerak egiteko epea aste honetan zabaldu dute eta Udalean egin

Ezinbestekoa da legez araututako elkarteak izatea, eta irabazi asmorik gabekoa

beharko dira, astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 13:00etara bitartean. Azken eguna martxoaren 21a izango da.

Onuradun izateko, Bergaran, Debagoiengan edo Gipuzkoan jardun behar du taldeak

IAZ, ZAZPI TALDEK JASO ZUTEN

Iaz ere 19.989 euroko diru kopurua izendatu zuen Udalak laguntza horiendako. Hamar taldek

Dirulaguntza eskaerak Udalean egin behar dira, eta azken eguna martxoaren 21a da

egin zuten eskaera, baina horietako zazpi jaso zuten laguntza, beste hirurek ez zituztelako baldintzak betetzen. Honako hauek izan ziren iazko onuradunak: Aransgi, Atzegi, Bergarako Odol Emaileen Elkarteak, Caritas, Behar zana, San Joxepe elkarteak eta ASPACE.

Eskaera egiteko, besteak beste, iazko jardueren memoria aurkeztu beharko da; hau da, egindako ekintzak, parte-hartzaile kopurua, parte-hartze maila eta interesgarritasunaren balorazioa.

Kanpoko igerileku txikia estali dute


MONIKA BELASTEGI

Kanpoko igerileku txikia egokitzeko lanak aurrera doaz. Dagoeneko estali egin dute eta aldagelak ere jarri dituzte. Udaleko iturrien esanetan, martxo erdirako lanak amaituta egongo dira. Hala ere, oraindik ez dute irekiera egunik zehaztu. Lanok Artzamedia enpresak dihardu egiten, eta estalkia eta aldagelak jartzeaz gain, igerilekuaren barruko aldean ere hainbat hobekuntza egin dituzte. Esaterako, sakonera txikien duen aldeari sakonera pixka bat handiagoa eman diote.

Hori horrela, sakonera txikieneko aldean 0,80 zentimetro izango du igerilekuak, eta ez 0,60 orain arte bezala. Alderik sakonenean, berriz, 1,20 zentimetro. Horrez gainera, igerilekuko ura eta haitza berotzeko galdara ere jarriko dute.

SARRERA, IPINTZAKO PATIOTIK

Behin-behineko igerileku estalirako sarrera ere berria izango da, eta zuzenean aldageletara emango du. Ipintza Institutuko jolaslekutik izango du sarrera, eta dagoeneko hasi dira hori ere egokitzen.



EDU MENDIBIL

Hau da kanpoko aldetik igerileku txikiak estalita duen itxura.



Joan den zapatuan izan zen elkarretaratzea epaitegi aurrean, eta 30 lagun inguru batu ziren.

KEPA ERRAZTI

EHE/Zapatuan egindako elkarretaratzean Ertzaintzak izandako jarrera ere gaitzetsi dute

Epaitegian euskaldunok bizi dugun zapalketa salatuta dute

MONIKA BELASTEGI

Euskal Herrian Euskaraz taldeak prentsaurrekoa egin zuen martitzenean epaitegi aurrean. Batetik, epaitegian euskaldunen hizkuntza eskubideen errespeturik eza salatuta zuten; bestetik, zapatuan egindako elkarretaratzean Ertzaintzak izandako jarrera.

EHEko kideek "epaitegian euskaldunok bizi dugun zapalkuntza" salatuta zuten prentsaurrekoan. Horren adibide hainbat datu eman zituzten. Azaldu zuten, "Bergarako epaitegian lau epaile daude eta guztiak dira erdaldunak; bestalde, 25 funtzionario

daude, eta %68 erdaldunak dira". Hori horrela, epaiketak euskaraz ezin direla egin adierazi zuten, "itzultzaile batekin ez bada"; eta horrez gainera, "bestelako edozein agiri ere erdaraz bakarrik egin daiteke".

Bergarako epaitegiaren egoera horrek, bergararren ez ezik, "eskualde osoko biztanleengan du eragina; eskualde osoko epai-barrutia izanik, 62.450 biztanleri eragiten die".

Ertzaintzak joan den zapatuan EHEk epaitegiko egoera salatzeko deitu zuen elkarretaratzean izandako jarrera ere gaitzetsi zuten: "30 euskaltzale inguru batu ginen eta han geundela Ertzaintza etorri eta hainbat bul-

tzakada ematez gain, bederatzita lagun identifikatzeko eskatu zieten. Batek EHNA erakutsi zion eta euskaldunen izaerari barre eginenez, *ese carnet del Club del Pato Donald, no esan zuen*".

OFIZIALTASUNIK EZA ERANTZULE

Egoera horren erantzule "euskararen ofizialtasunik eza" dela argitu zuten. EAEko hizkuntza plangintzak ez dira gai EHEko kideendako euskararen normalizazioa bermatzeko, "lege arrotzetik eratorriak direlako". "Euskararen benetako ofizialtasuna behar dugu, Euskal Herri osoa kontuan hartu eta herritarren hizkuntza eskubideen bermea oinarrian izango duena".



200 lagun inguruk jaso zuten Euskal Herriko Naziotasun Aitorpena

Zapatuan banatu zituzten lehen ENHAK. Horretarako ekitaldi berezia antolatu zuten Udaltzaren bulegoan 12:00etan, eta 200 lagun inguru hurbildu ziren euren EHNA jasotzera. Agiriak banatu bitartean bideo emanaldia eta luncha izan ziren. Lehen txandan heldutako agiriak ziren horiek; gehiago heldu ahala eskatzaileei jakinaraziko zaiela adierazi dute antolatzaileek. /ARGAZKIA: KIÑU

Pintaketa ugari azaldu dira herriko hainbat kaletan

MONIKA BELASTEGI

Aurreko asteburuan, hainbat pintaketa egin zituzten herriko hainbat kaletan. Gehienak erdialdeko kaletan egin zituzten. Udaltzaingoak emandako datuen arabera, 70 pintaketa inguru egin zituzten.

Egubakoitzetik zapaturako gauean egin zituzten pintaketak, Udaltzaingoaren esanetan. 70 pintaketa inguru zenbatu zituzten; erdia harrizko fatxadetan egin zituzten eta beste erdia, margotutako fatxadetan. Pintaketetan *Barrandala askatu*, *Presoak SOS* eta horrelako adierazpenak irakur zitezkeen.

Gehienak erdigunean egin zituzten, besteak beste, Bideku-

rutzetan, Barrenkalean, Masterrrekan eta San Martin plazan.

Pintaketak garbitzeaz Cespak enpresa arduratuko da, eta dagoneko hasi dira lanean. Harrizko fatxadei dagokienez, pintaketa kendu egingo dute, eta margotutako fatxaden kasuan, pintaketak gainetik margotuko dituzte. Udaltzari dagokionez, hor ere pintaketak azaldu ziren, fatxaden eta zutabeetan, hain justu ere. Horiek ez ditu Cespak garbituko. Udaletxea ondare kalifikatutako eraikina da, eta, horren ondorioz, enpresa espezializatu bat arduratuko da pintaketak garbitzeaz.

Gobernu batzordeak pintaketak gaitzetsi egin ditu eta egileen sentsibilitate falta ere aipatu du. Garbiketa lanek 9.000 euro inguruko gastua izango dute.



Irudian, Irizar jauregian azaldutako pintaketak.

EDU MENDOZA

Victoriano Gallastegi EAJ-EAko zerrendaburua izango da

MONIKA BELASTEGI

Joan den egunean egindako EAJko afiliatuen batzarrean onartu zuten Victoriano Gallastegi EAJ-EAko zerrendaburu izatea maiatzaren 25eko udal hauteskundeetan.

Gallastegik 62 urte ditu eta hauxe udal hauteskundeetara aurkeztuko den laugarren aldiz izango da. Gaur egun, Bergarako alkatetzaz gain, beste bi kargu ere baditu Victoriano Gallas-

tegi: Gipuzkoako Ur Partzuergoko eta Debagoieneko Mankomunitateko presidentea da.

Gallastegik aspaldi dihardu Udalean. Alkate izan baino lehen, 1983tik 1987ra, Hazienda batzarreko burua izan zen, Imanol Bolanaga alkate zela. Era berean oposizioan egon zen Jose Luis Elkorooren agintaldian, 1987tik 1991ra hain justu ere. 1991an zerrendaburu izateko proposamena jaso zuten EAJren aldetik eta gehiengo lortu zuen.

LABUR

Ongizate Sailak eskerrak eman nahi dizkie herritarrei sahararrei laguntzeagatik

Ohar honen bidez, Gizarte Ongizate Sailak eskerrak eman nahi dizkie herritar guztiei, sahararren alde adierazi duten elkartasunarengatik. Janariaren kasuan, bost tona inguru batu dira. Diruari dagokienez, elkarte kultural eta gastronomikoei 900 euro eman dituzte, gaztetxeak 800 euro, Bergarako Udalak 1.500 euro eta taberna eta dendetan jarritako itsulapikoetan 200 euro batu dituzte. Horri, Aranzadi Ikastolak Santa Agedan batutakoa eta herritarrek bi kontu zerbaitan sartutako dirua gehitu behar zaio.

ELKARRIZKETA

MARI JOSE ARANBURU/DOKTOREA ARTEAREN HISTORIAN

“Arte erlijiosoarekin lotutako lanak salbazioa lortzeko enkargatzen ziren, batez ere”

MONIKA BELASTEGI

Urtarrilaren 24an, tesia aurkeztu zuen Mari Jose Aranburu donostiarrak Leioan. *Arte y Piedad. El Arte Religioso en Bergara en el Antiguo Régimen* izeneko tesia egin du. Bikain *cum laude* kalifikazioa jaso zuen lanarengatik.

Zergatik aukeratu duzu Bergarako arte erlijiosoa tesirako gaitzat?

Begarako Udalak, UNEDekin batera, 1989an Bergarako historiaren gaineko zenbait monografia argitaratzea erabaki zuen; haietako bat, Jesus Gil Massarekin batera, nik egin nuen, *Artea Bergaran. Erdi eta Moderno Aroak*, hain zuzen. Horrela gertatu zen nire Bergarako artearekiko hurbilketa eta hantxe ikusi genuen Jesusek eta biok Bergarako arte ondareak ikerketa zabal eta sakonagoak behar eta merezi zituela. Hala, Jesusek tesi bati ekin zion “Udalak argitaratuta duen *Urbanismo y arquitectura civil en Bergara. Siglos XIII-XVIII*” eta nik nireari.

Zer batu nahi izan duzu tesian?

Nire asmoa ez da izan Bergarako artelanen katalogoa egitea. Arte erlijiosoa pietatearen ondorio da; debozioak, banakakoak zein kolektiboak, izan dira arte-entresak mugitu dituztenak; orduan, ezinezkoa gertatzen da artelanen interpretazioa egitea horrelako aspektuak kontuan izan barik. Edozein enkarguren atzetik sinismenei dagokien arrazoren bat dago, baita ikusleari nolabaiteko mezua bidaltzea ere. Betiere, artelana enkargatzen zuek zeukan boterea, prestigioa edo izen ona azpimarratu nahi zuela ahaztu barik.

Hori dela eta, obren analisisiaz aparte, bere inguruan batzen diren asmoak, helburuak, interesak eta gorabeherak kontuan izan ditut tesian.

Nork egiten zituen, bada, eskaerok Bergaran?

Eskaerak kolektiboak eta banakakoak daude. Bultzatzaile kolektiboen artean Eliza izan da enkargu nagusienak eta ugarietak egin dituenak; San Pedro eta Santa Marina parrokiak adibide argiak dira. Baina kontuan izan behar dira, era berean, kofradiak, Udala eta eliztarrak.

Bestalde, ezin ahaztu mundu pribatuan sortutako arte bildumak. Kalitate eta kantitate handiagoa edo txikiagoa dute, baina artearekiko nolabaiteko interesa agertzen dute guztiek; hori bai, debozioarekin lotu behar dira



Irudian, Mari Jose Aranburu, Leioan tesia defendatu ondoren ateratako argazkian.

JUANITO IDIGORAS

“Analisiatz gain, obren inguruan batzen diren asmoak eta helburuak jaso nahi izan ditut”

kasu guztietan, eta prestigioarekin zenbait kasutan.

Oso interesgarria den beste fenomeno bat ere badago, emariena, hain zuzen.

Ze helbururekin enkargatzen ziren artelan erlijiosoak?

Arte erlijiosoan, eta arte katolikoaren kasuan bereziki, Trentoko Kontzilioaren ondoren, batez ere, salbaziorako bide nagusienak ekintzak eta otoitza ziren. Ekin-tzen artean, infernutik ihes egiteko edo lehenbailehen askatzeko bide bat Elizaren behar ekonomikoetan parte hartzea zen, eta hor kokatzen dira artelan enkarguak ordaintzeko ematen ziren dirulaguntzak.

“Elizaren kasuan, artelanak Jainkoaren ohorerako egiten zituzten”

Elizaren kasuan, artelanak Jainkoaren ohorerako enkarguak dira eta, gainera, bere edertasunaren bitartez fededunen sinismena indartzeko bide apropo- netako bat bezala ulertu izan du historian.

Orduan, zenbait helburu elkartzen dira: pietatea, debozioa, eskertza, barkamena lortzea, Jainkoarekiko gurtza eta amodioa agertzea, santuei laguntza eskatzea, gizartearen, erakunde, famili edo banako baten prestigioa, eta abar.

Enkarguak ugariak izan dira eta oso zaila da adibide bat edo beste azpimarratzea. Hala ere, bi parrokitan eta baselizetan ager-

“Lehenago artistek askatasun txikia zuten; eskatzaileak zelako obra egin esaten zion”

tzen diren erretaulen kasua aipatutako guztiaren adierazle paregabea da.

Adibide bat ematea zaila dela diozu. Anekdotarik?

1648an, Antonio de Jauregi Salazarrek 310 marko -70 kilo inguru- pisatzen zuen zilarrezko lanpara bat eginarazi zuen Sevillan, San Pedroko parrokiari oparitzeko. Ondo egina, ederra, zoragarria eta eskergea zenez aldare nagusiaren aurrean kokatzea erabaki zuen parrokiak -Jauregi jaunaren gogoak ere jarraituz-, baina orduantxe Gaspar de Loiola agertu zen. Hark bere aitak urte batzuk lehenago oparitutako lanpara toki horretan zegoela

gogorarazi zien, eta hura baztertzea onartuko ez zuela argi utzi zuen. Horren ondorioz, iskanbila ugari izan ziren eta auzi bat ere izan zen. Azkenean, nolabaiteko konponbidera iritsi ziren: bi lanparak erdialderantz hurbildu zituzten. Dena dela, Loiola ez zen guztiz gustura gelditu, argi gelditu zen-eta Antonio Jauregiren boterea eta lehentasuna.

Jorratu dituzun hiru mendetan arte erlijiosoa aldatuz joango zen.

Hiru mende denboraldi luzea da, baina Antzinako Erregimenak arte erlijiosoaren kasuan, batez ere, ezaugarri ugari ditu komunean. Hala ere, badago nolabaiteko ezberdintasuna markatu zuen garrantzizko gertaera bat: Trentoko Kontzilioa eta hark bultzatu zuen arte mota. Gainera, kontuan izan behar da bi estilo nagusi aurkitzen direla ikasitako garaia barnean: errenazentista eta barrokoa. Hori guztia kontuan izanik ondo uler daiteke artelanen barietatea, bai formen aldetik, bai esanahiaren aldetik.

Eta gaiak adierazteko era asko aldatu zen garai haietan?

Jakina. Ikonografiaren aldaketa handia izan zen, gai berriak agertzen dira estilo batetik bestera pasatzen garenean. Kontrarreformak goraiatu zituen santu berriak gurtzen zituzten, eta lehendik ere irudikatzen ziren gaiak dramatikotasun handiagorekin adierazten hasi ziren, fededunen sentimenduak era biziagoan hunkitzeko.

Barrokoaren garaian, Kristo gurutziltzatuaren samina era bortitzagoan islatzen da, santuen martirioak tragikotasun osoz irudikatuz.

Enkarguak jasotzen zituzten artistek askatasunez egiten zituzten lanak?

Ez zuten gaur egungo artistek izan duten askatasunik. Enkarguak egiten zituztenek artistari ikonografia bat inposatzen zioten: ze gai, zelan aurkeztua, koloreak, materialak... Artistak ezer gutxi egiten zuen bere kasa. Hori bai, obraren kalitatea bere esku eta mailaren arabera zegoen.


Bergaran ditugun lan aipagarrienak?

Asko eta asko. Baina batzuk aipatzeagatik: Santa Marinako elizaren espazioa eta bere erre- taula nagusia eta albokoak; San Pedro elizako Kristo gurutziltzatu eta alboan duen Ama Birjinnaren mihisea, San Migelen erre- taula eta Collantesen San Jeronimoren irudia; Jesusen Lagundiaren elizan dagoen San Inazioaren eskultura...



AMURIZA ETA ITURRIAGA BERTSO AFARIAN

Aurreko zapatuan, Xabier Amurizarekin eta Unai Iturriagarekin bertso afaria izan zen Artatse elkartearen. Haiekin batera, 60 bat lagun izan ziren afaltzen. Lagunartean primeran afaldu ondoren, Amurizak eta Iturriagak bertsoak eskaini zizkieten batutakoei, eta, honelakoetan gertatzen den moduan, umore ona izan zen nagusi, txantxak ez ziren falta izan-eta. Artatsera joandakoek ondo baino hobeto pasatu zuten gaua.



BERGARA K.E.KO ZOZKETAKO IRABAZLEA

Martin Loiti izan da Bergara KEK hilero antolatzen duen zozketako lehen irabazlea. Martinek saskia eta garbigailua eskuratu ditu. Argazkian, Martin Loiti jasotako sariarekin, alboan Xabier Bengoetxea (argazkian ezkerrean) eta Miguel Angel Zamora no Otseineko ordezkariak dituela. Otsailean, saskia eta Etxeberria erlojutegirako erosketa bonoa zozketatuko ditu Bergara KEK. Txartelak salgai daude herriko hainbat tabernatan.



JARDUNEKO GAZTETXOAK PATINATZEN

Jardun Elkarteko Txapligu taldekoak Gasteizko izotz-pistan patinatzen izan ziren joan den otsailaren 8an. Txapligu taldea 8 eta 11 urte bitarteko gaztetxoek osatzen dute eta guztira 51 lagun izan ziren Gasteizen. Umeekin Idoia Retegi, Aritz Alustiza, Aitziber Muxika eta Eli Alberdi begiraleak izan ziren. Gasteizko izotz-pistan fenomeno pasatu zuten eta patinatzaile trebeak direla erakutsi zuten batek baino gehiagok. Oraingo asteko temperaturak ikusita, agian kalean gora kalean behera patinatzen ikusiko ditugu laster...

INFERNUKUA TABERNA

Masterreka 23. BERGARA. 943 76 18 49

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

CLINICA DENTAL BERGARA

HELBIDE BERRIA:
Bidekurutzeta 36, behe

Tel.: 943 76 05 77

• Odontologia helduendako eta umeendako • Hortz-protesia • Estetika eta zuritzea
• Inplanteak eta kirurgia • Umeendako tratamendua, prebentzioa eta ortodontzia

Aseguruak: Ipresa, Sanitas, Asisa, DKV/Previa, Aegón, Guía Azul de Guipúzcoa eta Dentys

DESKONTU BEREZIAK
zaharren etxeak, ezgaituak eta enpresak

MINGAINARITIRAKA



Arantza Beristain

KZGUNeko IRAKASLEA

Arantza Beristain elgoibartarrak (25 urte) Ekonomia ikasketak egin ditu Sarrikoko Fakultatean, eta, era berean, Interneten aditua da. Euskal Herrian zabaldu diren hainbat KZGunetan jardun du lanean; abendua ezkerro Bergarakoan dihardu.

Eta zuk zeuk zertarako erabiltzen duzu Internet?
Gauza askotarako: informazioa topatzeko, nire zaletasunen gaineko gauzak ikusteko, mezuak bidaltzeko, lanerako...
Internetek dauzkan gauzarik onena eta txarrena?

Orena, edozein gairen gaineko informazioa topa daitekeela; txarrena, askotan geldo dabilela eta pornografia non-nahi dagoela.
Interneten topatu duzun gauzarik bitxiena?
Messenger programa, bideo konferentziak egiteko balio duena.
Posta elektronikoa ala tradizionala?
Elektronikoa, duda barik.

Amodiozko gutunik idatzi duzu sekula?
Bai, baina bestelakoan, posta tradizionalan.

Mutil bati zeri erreparatzen diozu lehenbizi?
Izaerari, ea jatorra den.

Besteengan gehien estimatzen duzuna?
Egiazaletasuna.

Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?
Ingurukoekin eta neure buruarekin gustura egoteari.

Liburu bat/Film bat/Musika talde bat?
El señor de los anillos (J.R.Tolkien)/*Mi amigo Joe*/Su ta Gar.

Kirolzalea zara?
Bai, mendizalea naiz eta *snow*-a egitea ere gustatzen zait.

Inguruko mendi bat?
Karakate.

Urtaro bat?
Udaberria gustuko dut, besteak beste, mutilak eta biok maiatzean egiten ditugulako urteak.

Horoskopoa irakurtzen duzu?
Batzuetan. Taurusok burugorrrak eta egiazaleak ei gara.

Janari bat eta edari bat?
Babarrun gorriak eta garagardoa.

Aste bukaerarako plan on bat?
Mendira joatea eta lagunekin parrandatxo egitea.

Ametz bat?
Gaur egungo Euskal Herriko egoera konpontzea.

EDU MENDIBIL

NIREBIDAIAHURA/ Igor Basauri

INDIA / 2002ko abuztuan

Koadrilako sei lagunek egin genuen Indiara bidaia abuztuan. Hila-bete osorako joan ginen, eta hegaldia eta Delhin lehen gaueko hotela bakarrik kontratatu genuen aurrez. Indiara heldutakoan gure kontura ibili ginen, eta ondo moldatu ginen, ez genuen inolako arazorik izan. Gure helburuetako bat Rajastan ikustea zen, Pakistanekin mugan dagoen Indiako mendebala, hain zuzen ere. Indiako zonarik erakargarrietakoa da, zalantza barik, eta hara joateko *jeep* moduko bat hartu genuen errentan, txoferrarekin, Indian gidatzea zorarena delako. Bi aste egin genituen Rajastanen, eta basamortuko aldeaz gain, hainbat hiri bisitatu genituen han. Jaisalmer, esaterako, desertuan dagoen Urre koloreko Hiria da, gaztelu ikusgarriak eta gotorleku dotorea dituena. Oraindik jendea bizi den munduko gotorleku bakarretakoa da, oker ez banago. Jodhpurren ere ospe handia duen gotorleku eraso ezina dago. Bestalde, Jaipur, Rajastango hiriburua, ez zitzaigun askorik gustatu. Hala ere, gorai patzekoa da zinemaren industriak han eta, orokorrean, Indian duen indarra. Puskar, berriz, hiri sakratuetako bat da, eta Brahma jainko indiarrari kultura egiten diote. Esan behar da erlijioak erabateko



“Herrialde koloretsua da India, paisaiagatik eta hango jendearen jantziengatik”

“Benares oso hiri mistikoa da, Ganges ibaian egiten diren errausketengatik, batez ere”

garrantzia duela Indian, eta, besteak beste, musulmanak, hinduismoaren jarraitzaileak, sikhak edo jainistak direla.

Pakistango mugan, basamortuan gameluan ibiltzeko eta gaua bertan pasatzeko aukera izan genuen. Sekulako beroa egiten zuen eta nahiko gogorra gertatu zen, baina gauean zerua ikusteagatik bakarrik merezi du. Rajastendik Khajurahora jo genuen, eta han tenplu erotiko ospetsuak ikusi genituen. Agran, berriz, Taj-Majaleko mausoleoa dago, maitasuna adierazteko XVII. mendearen hasieran eraiki zutena. Mar-molezko eraikin benetan dotorea da; goizean goiz joan ginen hura ikustera, turista asko ibiltzen da-eta. Era berean, mogolek eraiki zuten Fatehpur Sikri Erdi Aroko hiria eta Benares ere ikustekoak dira. Benares oso hiri mistikoa da, Ganges ibai-ko errausketengatik, batez ere. Pelegrinazio tokia da; nagusi asko hara joaten da hiltzera.

Oso gustuko bidaia izan genuen. India oso herrialde koloretsua da, paisaiagatik eta hango jendearen jantziengatik. Oso kontraste handiak topa daitezke, eta usainak barruraino sartzen dira. Bizimodua modu gordinean ikusteko aukera dago han.

EDU MENDIBIL



Igor Basauri eta bere lagunak, Fatehpur Sikri hirian ateratako argazkian.

NEODEPILAZIOA: LASERRA ILEA KENTZEKO
DENA, MEDIKUAREN KONTROLPEAN

DepiClub-en ez dugu tratamendu magikoetan sinesten. Izan ere, ikerketa pertsonalizatu baten bitartez diagnostika dezakegu zure arazoa, hala, modurik egokienean tratatzeko. PROFESIONALITASUNEZ.



LEHENENGO KONTSULTA DOAN



Ibargarai 10 Tf. 943 76 00 85

in aut, eriak.

OSAGARRI GUZTIAK GRACIANEN

Gracian

Bidekurutzeta 6
Tf: 943 76 10 25



DAMASO GALLASTEGI/NATURA EKINTZEN EUSKARAZKO FITXEN EGILEA

"Natura ekintzen fitxak egiteko ordua zen, gaztetxoan artean oso harrera ona dute-eta"

EDU MENDIBIL

Debarroko euskara eta kirol zerbitzuen *Kirola euskaraz* programaren barruan argitaratutako azken fitxak aurkeztu zituzten aurreko astean Eibarren. Natura ekintzetako fitxen egilea Damaso Gallastegi bergarra izan da.

Damasok bere lanbidea (gimnasiako maisua da Aranzadi Ikastolan) eta mendiko zaletasuna uztartu ditu fitxak egiterakoan. Mendizaletasuna, orientazioa eta eskalada jorratu ditu. Damasok azaldutako moduan, "mendizaletasunaren gainekoak fitxa teorikoak dira eta, besteak beste, 10 eta 15 urte bitarteko gaztetxoekin mendi irteera bat zela planteatu azaltzen da, eraman beharreko materiala, elikadura egokia edo motibazioa pizteko moduak aztertuta; orientazioko fitxetan, berriz, 15 bat jardura edo ariketa jasotzen dira, gaztetxoek planoak eta mapak interpretatzen eta ipa-

rorratza erabiltzen jakin dezaizen; eta, azkenik, eskaladako fitxetarako dagokienez, ikastetxean bertan egin daitezkeen jolasak edo gimnasioetako ohiko materialarekin egiteko modukoak azaltzen dira".

Era berean, gaztetxoek roko-dromoa erabiltzen hasteko ariketa aproposak batu ditu Damasok. Askotan eskalada zailtasunarekin eta istripuekin lotu izan dela salatzen du, eta, beldurrok uxatzeko-edo, modu didaktikoan eta errazean aurkeztu ditu roko-dromoko ariketak, "hasierahasieratik edozein irakasle edo kirol monitorea bere ikasleekin egiteko aukera izan dezan. Horrela, hiru metroko altuerarainoko ariketak, arnesarekin edo lokarriarekin egin beharrekoak eta eskalada eskola baten egin daitezkeenak ere planteatzen dira".


Euskarazko fitxetan natura ekintzak lantzeko ordua zela diosku Damasok, "gaztetxoei izugarri gustatzen zaizkie-eta. Ikusi besterik ez dago udalekuan edo Gabonetako jolasparkeetan zubi-

jauziak, tirolinak eta horrelakok zer-nolako harrera ona izaten duten. Neskek eta mutilek eskatzen dituzten jarduerak dira".

Fitxa horiek nagusiki ikasle gazteei zuzendutakoak direnez, testuaz gainera, irudiz lagunduta datozkigu. Helburuetako bat fitxak entretenigarriak izatea izan da, eta Damasoren lehengusu Josu Mujika zenak egin zuen lan grafiko guztia.

EUSKARAREN PRESENTZIA KIROLEAN

Kirola euskaraz programari esker, Debarroko euskara eta kirol zerbitzuek material dezente argitaratu dute dagoeneko. Damasoren ustetan, "euskararen presentzia gero eta handiagoa da kirol guztietan, eta, esate baterako, lexiko aldetik zenbaitetan planteatzen diren zailtasunak gainditzeko gauza dela erakutsi du euskarak. Eskaladako hiztegi teknikoak egiterakoan, esate baterako, oso baliagarriak gertatu zaizkit lagunen eta ingurukoek ekarpenak".



OXEL ERROSA

Txirrindulari Elkarteak martxoaren 2an ekingo dio denboraldiari

E.M.

Txirrindularitza denboraldia hasierako dago eta Bergarako Txirrindulari Elkarteak lagunak dagoeneko gertu daude pedalei eragiteko. Datorren domekan, martxoaren 2an, urteko lehen irteera egingo dute, 09:15ean, San Martin plazatik irtenda. Ohikoa denez, herriko zikloturistek Dorletako Amabirjinari lore eskaintza egingo diote, errepidean haren laguntza izateko. 45 kilometroko bueltatxo egingo dute eta eguerdi aldera lancha izango dute Zuloa elkartearen. Mendiko bizikletan ibiltzen direnek ere egun horretan izango dute urteko lehenengo hitzordua: 09:30ean elkartuko dira, beheko estazioan, eta Antzuola, Lizarraga eta Oñati aldean ibiliko dira.

Bestalde, errepidean ibiltzen direnek uda aldean irteera berezia egingo dute. Aurten, Soriako Neilako Urmaletara joango dira, uztailaren 12an.

LIZENTZIAK, GERTU

Bergarako Txirrindulari Elkarteak kideek adierazi digutenez, aurten, 60 bat lizentzia tramitatu dituzte, iazko antzera. Aurten denboraldirako lizentziak i2 eta Biciprecisión Igartua bizikleta dendetan jaso daitezke.



ARTXIBOA

Bergarako Txirrindulari Elkarteak irteeretan 20 bat lagun biltzen dira.

Errepideko lehen irteerak

Martxoaren 2an	Bergara-Dorleta-Oñati-Bergara	45 km
Martxoaren 9an	Bergara-Deba-Itziar-Bergara	70 km
Martxoaren 23an	Bergara-Otxandio-Ubidea-Landa-Bergara	80 km
Martxoaren 30ean	Bergara-Trabakua-Ondarroa-Deba-Bergara	85 km
Apirilaren 6an	Bergara-Udania-Mandubia-Azpeitia-Urretxu-Bergara	85 km
Apirilaren 13an	Bergara-Deba-Arrona-Azpeitia-Bergara	90 km

Martxoan irteerak 09:15ean eta apirillean 09:00etan, San Martin plazatik

Mendiko bizikletako lehen irteerak

Martxoaren 2an	Bergara-Antzuola-Lizarraga-Oñati-Bergara
Apirilaren 13an	Bergara-Soraluze-Irukurutzeta-Elosu-Bergara
Maiatzaren 11n	Bergara-Oñati-Txopekua-Harrobia-Txopekua-Bergara

Martxoan eta apirillean irteerak 09:30ean eta maiatzean 09:00etan, beheko estazioetik

Gazte mailako futbol taldeak Santa Maria hartuko du

E.M.

Euskal Ligan dabilen Bergara KEko gazte taldeak Gasteizko Santa Mariaren aurka jokatu du domekan Agorrosinen, 16:00etan. Zarautzen galdu ondoren, bergararrak hamahirugarren daude sailkapenean.

Azken jardunaldian Bergarak 3-0 galdu zuen Zarautzen, eta, horren ondorioz, zarautzarrek bergararrak alde murriztu dute. Mahoneroek 20 puntu dituzte eta haien atzetik Zarautz (19 puntu), Gasteizko Santa Maria (19) eta Asti Leku (12) daude. Fernando eta Javi Oregiren mutilek aukera ona izango dute domekan gasteiztarrek atzean lagatzeko.

Bestalde, domekan beste partidua jokatu da. Bergara KEko infantil mailako taldeak Vasconia izango du bisitari Ipintzan, 11:00etan.

Zapatuan, berriz, beste bi partidua izango dira Ipintzan: goizez, lehen mailako kadeteek Intxurreren aurka jokatu dute, 11:45ean, eta arratsaldean, Bergarako eta Usurbilgo bigarren mailako kadete taldeak izango dira aurrez aurre, 16:00etan.

Preferente mailako taldeari dagokionez, Nafarroan, Beran, jokatu du domekan, Gure Txokoaren aurka, 15:30ean. Nafarrak

sailkapeneko azkenaurreko tokian daude, eta Bergarak hiru puntuak eskuratu nahi ditu. Aurreko zapatuan Beriori 5-1 irabazi ostean, Juanina Garraien mutilak bosgarren daude, eta hirugarren postuan den Berriola puntu bakarririk dago. Agorrosingo zelaia oso txarto egon arren, bergararrak erraz irabazi zioten Beriori. San Vicentek Zubikaraik, Arregik, Mendizabalek eta Altxolak egin zituzten etxeko golak.

HIRU ESKUBALOI PARTIDU

Aste bukaeran, hiru eskubaloitako partidua jokatu dira Labegazteko kiroldegian. Zapatuan gazte mutilen taldeak Usurbilgo aurka jokatu du, 16:00etan, eta jarraian, senior mailako mutilen taldeak Trapaga taldearen aurka neurtuko ditu indarrak, 17:30ean. Edu Orgazek taldeak 35-25 galdu zuen azken jardunaldian. Erreintzen azken aurka, eta bihar ezinbestekoa du irabaztea Euskadiko Txapelketako sailkapeneko azken postuetatik ihes egiteko. Zelaia berezia egiten diete bihar taldeari lagun diezaioten.

Eskubaloitako jardunaldietan amaitzeko, azkenik, Oihana Gortziak mendiak zuzentzen duen kadete mailako nesken taldeak Urteak hartuko du domekan kiroldegian, 12:00etan.



SASKIBALOI SAILA

Argazkian, Ramon Condek zuzentzen duen senior mailako saskibaloia taldea.

SASKIBALOA

Senior mailako taldea Santo Tomas talde donostiarraren aurka bihar

Bigarren faseko lehen partiduan bergararrek Easori irabazi zioten zapatuan (56-69)

E.M.

Bergara KEko senior mailako saskibaloia taldeak Donostiako Santo Tomas taldearen aurka jokatu du bihar, zapatua, kiroldegian, 19:15ean. Bigarren faseko bigarren partidua izango da biharkoa.

Lehen fasean bergararrak hirugarren tokian sailkatu ziren, eta, horren ondorioz, ez zuten igoera fasea jokatzeko txartelik lortu. Bigarren fasean erdibideko liga baten dabilta orain, eta ezer gutxi dute lortzeko. Hala ere, Ramon Conde entrenatzailearen esanetan, "partidu guztiak irabaztea da gure helburua. Talde-

ak hobera egin du liga hasieratik ona eta helburu hori lortzea posible ikusten dut. Minutu gutxi jokatzen zuten jokalariek ere konfiantza hartu dute eta taldea ondo ikusten dut. Agian, hurrengo denboraldian, progresio honekin jarraituz gero, Gipuzkoako lehen mailara igotzeko moduko taldea izan dezakegu".

Aurreko zapatuan, bigarren faseko lehenbiziko partiduan, garaipena erdietsi zuen Bergarak Donostian, Easoren aurka. Condek jokalaria hauek jarri zituen jokoan: Gorka Eraña (18 puntu), Iban Herzog (11), Aitor Ugarte (8), Jesus Morais (17 puntu), Unai Iñarra (7), Jorge Morais, David Urbina (7) eta Mikel Larrañaga

(puntu bat). Bergararrek partidu ona egin zuten, baina Conderen ustez gehiegixko huts egin zuten jaurtiketa libreetan. Hala ere, entrenatzaile bergararra pozik zegoen bere jokalariek egindako lanarekin. Biharko partiduan, kiroldegira hurbiltzen diren zaleei ikuskizun ederra eskaintzan saiatuko dira Conderen jokalariek.

KADETEAK, ETXEAN

Bestalde, kadete mailako bi taldeek ere etxean jokatu dute zapatuan. Bergarak Gros Xake taldea hartuko du eta Lacorrek Loiolaren aurka neurtuko ditu indarrak. Bi partidua 12:00etan hasiko dira.

Igeri Elkarteko lau neska, Euskadiko Txapelketara

E.M.

Bergara Igeri Elkarteko Maite Urtzelai, Goiatz Pérez, Neritzel Albusua eta Maria Galarraga junior mailako igerilariak Euskadiko Txapelketan hartuko dute parte aste bukaeran Azpeitian. Aurreko asteburuan, Gipuzkoako Txapelketan hartu zuten parte, eta errelebuka bosgarrenak izan ziren 4x50 m eta 4x100 m estiloetako probetan eta seigarrenak 4x50 eta 4x100 estilo librean. Bana-bana, Neritzel Albusua bigarrena izan zen 100 m eta 200 m bularretan eta 400 m estilo librean. Maite Urtzelai, berriz, hirugarrena izan genuen hiru probatan:

50 m estilo librean eta 50 m eta 100 m bizkar eran. Azkenik, Goiatz Pérezek bigarren postua lortu zuen 50 m estilo librean, laugarren tokian sailkatu zen 100 m estilo librean eta bosgarrena 200 m estilo librean.

INFANTILAK, GASTEIZEN

Bestalde, infantil mailako Ana Balentziagak eta Olatz Fernándezek Igerilari Osoaren Euskadiko Txapelketan hartu zuten parte Gasteizen. Estilo bakoitzeko 100 m-ko proba egin behar izan zuten. Balentziaga 16. tokian sailkatu zen eta Fernández 32.a izan zen. Guztira, 50 igerilari izan ziren lehian.

FOTOKIROLA



Ariznoa taldeko gimnastak, sasoi betean

Antzuolako Herri Eskolako, Mariaren Lagundiko eta Ipintzako taldeak lehenak izan ziren alebin, infantil eta kadete mailatan, hurrenez hurren, zapatuko Eskola Arteko Gimnasia Erritmiko Txapelketan. Infantiletan, Eider Carrascok lehen postua lortu zuen sokarekin, Oihana Agirrerren aurretik, eta uztaiarekin Maialen Legorburu izan zen lehena kadeteetan eta Virginia Odriozola bigarren. Benjamin mailako Ariznoako taldeak ere erakustaldia egin zuen, eta Eukene Bastarririk eta Amaia Irastortzak banakako saioa egin zuten. /ARGAZKIA: JOSE AGUAYO

LABEGARAIETAKO FUTBITOXAPELKETA

SAILKAPENA

A MULTZOA	P	J
1. Bayer	28	13
2. Artusamak	28	13
3. A Ze Flaxa	27	13
4. Dedo Pafarru	24	13
5. Agirrebeña	24	13
6. Txipiron	18	13
7. TNT	18	13
8. Pirulotarrak	15	13
9. Torrekua	6	13
10. Etengabe	6	13
11. Cipote Nucleico	3	13
12. De Ore	0	13

B MULTZOA	P	J
1. Bedarreta	37	13
2. Errotagain	32	13
3. Mongatxurak	28	13
4. Fac	25	13
5. Argandolas	22	13
6. Canalejas	21	13
7. Aterpe	20	13
8. Pagomendi	18	13
9. Las putas de Satan	15	13
10. Irubide	13	13
11. Komando Piperrak	12	13
12. Bar Ganbara	10	13
13. Belengua	8	13
14. La Quinta del Buitre	0	13

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

- 09:30: Aterpe-Komando Piperrak. **Antolat.**
- 16:00: Agirrebeña-Torrekua. **Cipote Nuclei.**
- 17:00: Cipote Nucl.-Belengua. **Torrekua**

DOMEKAN, BARRUAN

- 09:30: Txipiron-Etengabe. **Argandolas**
- 10:30: A Ze Flaxa-Argandolas. **Etengabe**
- 16:00: TNT-Las putas de Satan. **Pagomendi**
- 17:00: Pagomendi-Bar Ganbara. **Pirulotar.**
- 18:00: Irubide-Pirulotarrak. **Artusamak**
- 19:00: Artusamak-Fac. **La Quinta del Buitre**
- 20:00: De Ore-La Quinta. **Fac**

MENDIA

Gorla Alpinok eta Pol-Polek antolatutako mendi irteera izango da domekan

Pol-Pol Mendizale Taldeak eta Gorla Alpinok domekan, otsailaren 23an, Brinkolara eta Urtiagainera joateko mendi irteera antolatu dute. Irteera 08:00etan izango da, frontoitik, eta herriko mendizaleei irteeran parte hartzeko dei egiten diete. Bazkaltzeko herri-ira bueltatuko dira. Interesatuak Pol-Poleko bulegora (943 76 48 51 telefono zenbakia) dei dezakete izena emateko.

FUTBOLA

Racing-Reala partidua ikustera joateko Santanderre irteera martxoaren 16an

Racingek eta Realak martxoaren 16an Santanderren jokatu dute partidua ikustera joateko irteera antolatu dute. Autobus bidaia 12 euro balio du (sarrera aparte). Irteera 10:00etan izango da, frontoitik. Izena Erreki erretegiaren eman daiteke.

Emanaldia hilaren 28an izango da, Udal Pilotalekuan, 22:30ean, eta batuko den dirua Josu Cifuentes umearen sendabiderako izatea erabaki du Udalak.

Aratusteetako kontzertuan 'Eraztunen Jauna' film ezagunaren musika joko dute

MONIKA BELASTEGI

Urtero moduan, Aratuste jaiei hasiera emateko kontzertua egingo dute Udal Musika Bandak eta Bergarako Orkestra Sinfonikoak. Emanaldian batuko duten dirua Josu Cifuentes 12 urteko mutikoari laguntzeko izatea erabaki du Bergarako Udalak.

Udaleko Kultura batzordeak antolatutako emanaldia da, eta bi atal izango ditu: lehenengoan, Udal Musika Bandak eta Bergarako Orkestra Sinfonikoak hartuko dute parte. Bandak bi lan egingo ditu: K. Schoonenbeeken *Fantasia Super L'homme Armé* eta J.V. der Roosten *Suite Provençale*. Orkestra Sinfonikoak, berriz, G. Rossiniren *Semiramis* obertura egingo du. Bigarren atalean, bandak, orkestrak eta Xamatx dantza taldeak elkarrekin, *Eraztunen Jauna* filmarendako lehenengo filmarendako H. Shorek konposatutako soinu-banda egingo dute.

'ERAZTUNEN JAUNA' FILMAREN SOINU-BANDA

Alfredo González Chirlaquek soinu-bandaren gainean egindako moldaketa joko dute bandak eta orkestrak emanaldian. Gainera, Aratusteak direla kontuan izanda, eta musikari sinesgarritasun handiagoa emateko, taldeetako kideak *Eraztunen Jauna* filmeko pertsonaien antzera jantzita egongo dira: ia guztiak herritar arruntez, eta zortzi pertsonaia nagusiez; hau da, *Frodo*, *Gandalf* eta *Aragorn*, besteak beste. Gainera, horren guztiaren lagungarri Xamatx dantza taldea egongo da, eta Nagore Sanzek ere abestu egingo du. Horrez gain, bestelako laguntza ere izan dute gauzak

antolatzeke orduan: Mikel Ibarzabalek dekoratuak egin ditu, Tavex-ek jantziak egiteko telak utzi dizkie, Ibaiak taldea soinuaz arduratuko da eta Pol-Pol argazki taldeak emanaldian argazkiak egingo ditu.

Alfredo Glez. Chirlaquek azaldu duenez, *Eraztunen Jauna* filmaren lehen ataleko soinu-bandak hiru oinarri nagusi ditu: antzinako musika, gaur egungo musika eta folk irlandarra. Eta oinarri horien gainean denetari-ko elementuak dituela gehitu du: elementu dramatikoak, bataila-koak, maitasunezkoak... Elementu horiek guztiek, baina, lokarri bat dute; metala, hain justu ere.

ASTELEHENETIK SARRERAK SALGAI

Astelehenean, hilaren 24an, jarriko dituzte salgai emanaldirako sarrerak. Lazkano zapata denda eta kultura etxean eskura daitzke, eta prezioa hiru euro da. Bestalde, kontzertu egunean bertan ere zabalduko dute leihatila txartelak erosteko, 21:30ean. Emanaldirako atea, berriz, 22:00etan zabalduko dituzte.



Emanaldiaren bi atalek lotura izan dezaten, lehenengo ataleko obrak ere antzinako musikan oinarrituta daude.



Josu Cifuentes.

ARTXIBOA

Bartzelonara hezur-muina transplantatzeko

Josu Cifuentes 12 urteko mutikoak leuzemia dauka. Gaur egun, Gasteizen dihardu tratamendua jasotzen, baina laster, Bartzelonara eraman behar dute hezur-muina transplantatzeko. Hori horrela, hainbat hilabete eman beharko ditu han, eta gastu horiei guztiei aurre egiten laguntzeko erabaki du Udalak kontzertuko dirua haren familiari ematea, Nere Amaia Zabala Kultura zinegotziaren esanetan. Horrez gain, Udalak berak ere dirulaguntza eman dio.

Otsailaren 28ko emanaldiaz gain, beste ekimen batzuk ere badira herrian Josu Cifuentes gazteari laguntzeko: alde bategatik, hiru saski zozketatuko dituzte eta txartelak herriko denda gehienetan dauden salgai.

Bestetik, hiru kontu-korrante zabaldu dituzte helburu berarekin: Euskadiko Kutxan (3035 0009 16 0090701568), Caja Rural de Navarran (3008 0169 55 0100016282) eta Banco Guipuzcoanon (2101 0070 84 0124057092).

Koldo Eleizalde Literatura Lehiaketaren oinarriak, kalean

MONIKA BELASTEGI

Lehiaketaren 18. aldia da eta Bergaran jaio, bizi edo lan egiten duen edozeinek har dezake parte. Adinaren arabera bost talde egongo dira: 1995-96an jaioak, 1993-94an jaioak, 1991-92an jaioak, 1998-90ean jaioak eta 1987an edo aurretik jaioak.

Literatura lanen generoari dagokionez, lehenengo lau taldeetan ipuinak izan beharko dute eta bosgarrenean bi atal egongo dira: ipuinena eta olerkiena. Lan bakoitzeko bi kopia bidali beharko dira, eta laugarren eta bosgarren taldeetako lanak makinaz aurkeztu beharko dira. Horrez

gain, lehen hiru taldeetako lanek gehienez bi orrialde izan beharko dituzte; laugarren taldekoenek, 2tik 5era eta bosgarren taldekoenek, 3tik 10era.

Lanok *Koldo Eleizalde Literatura Lehiaketa* izenburuarekin Udaleko Euskara Zerbitzura bidali beharko dira, eta azken eguna apirilaren 30a da. Sariak honakoak dira: lehenengo hiru taldeetako hiru lan onenei, material didaktikoa; laugarren taldeko lehenari, 105 euro; bigarrenari, 75; eta hirugarrenari, 57. Bosgarren taldeko lehen ipuinari, 260 euro; bigarrenari, 200 eta hirugarrenari, 140. Olerkietan sari bakarra egongo da: 260 euro.



Amodiozko gutunen sariak, banatuta

San Valentin egunean banatu zituen Jardunek Amodiozko Gutunen XI. Berrigara Lehiaketako sariak. Ekitaldia Zabalotegi aretoan egin zuten. Ohi bezala, irabazleetako bakoitzak bere gutuna irakurri zuen eta horren ondoren saria jaso. Irudian, irabazleak: Iñaki Serrano (lehen saria), Uxue Alberdi (bigarren saria eta Irakurle Gazteen saria) eta Roberto Izagirre (herriko onena). Sakelako telefono bidezko mezuen irabazlea, Gorka Beotxide, ezin izan zen joan.

E, TXO!

HAINBAT EKITALDI
ASTEBURUAN GAZTETXEAN

Gaur, egubakoitza, Latirili antzerki taldearen emanaldia izango dugu Bergarako gaztetzean, 22:30ean. *Tentenpie* antzezlan eskainiko digute Latiriliko lagunek.

Bihar, berriz, zapatua, musikaren txanda izango dugu gaztetzean. Kontzertuan Petti abeslari nafarraren, Basque Country talde bergararren eta Terry Lee Hale kantari amerikarraren emanaldiez gozatzeko aukera izango dugu, 22:30ean.

GAUR EGUNGO ARTEAREKIN
LOTUTAKO BEKAK

Gaur egungo artearen dokumentu-ondarearen gaineko informazioa batzeko eta ikertzeko beka emango du Artium museoak. Guztira, 5.600 euro. Beka hori lortzeko, beharrezkoa da Arte Ederretan, Artearen Historian edo Bibliotekonomia eta Dokumentazioan lizentziaduna izatea. Martxoaren 31ra arte dago eskaerak aurkezteko aukera. Artium museoan bertan aurkeztu behar dira eskaerak, Liburutegi eta Dokumentazio Sailean. Informazio zabalagoa nahi izanez gero, www.artium.es webgunean edo honako telefono zenbakian izango duzue: 945 20 90 00.

GARAPENERAKO
LANKIDETZARAKO BEKAK

Sei beka emango ditu Eusko Jaurlaritzak, garapenerako lankidetzan trebatzeko. Beharrezkoa da unibertsitarioa izatea beka hori eskatzeko, eta martxoaren 8ra arte dago eskaerak aurkezteko aukera. 945 01 80 00 telefono zenbakian jasoko duzue informazio zabalagoa.

GUREGAIK/ ISTRIPUAK

Gazteen eta istripuen
gaineko hausnarketa

AINTZANE IRIZAR

Gipuzkoako Diputazioaren webgunean, gazteen mugikortasunaren eta istripuen gaineko hausnarketa batekin topo egin dugu. www.gipuzkoa.net webguneko *Gaztemira* sailean topatuko duzue.


Ohikoa da auto istripuak gazteekin lotzea. Askotan entzuten da gazteak direla zirkulazio istripu gehien izaten dutenak. Baina hori hala da? Hori da errealitatea? Hausnarketa horixe egiten da aipatutako txostenean. Eusko Jaurlaritzak eta beste hainbat erakunde eta enpresak egindako azterketak oinarri hartzen dituzte hausnarketa egiteko. Hamai-

ka datu eta portzentaje topatuko ditugu txostenean, galdera horiei guztiei erantzuteko. Guk horietako datu batzuk besterik ez dugu hona ekarriko.

Txosten horretan esaten denaren arabera, Gipuzkoan gazteena da istripuetan inplikatuena azaltzen den sektorea. Fenomeno hori, gainera, izugarri dabil areagotzen azkeneko urteotan.

Topikoak topiko, hainbat ikerketaren arabera, gazte gutxi batzuk dira errepideko arrisku gehienak pilatzen dituztenak.

Bestalde, gazteak, istripuak eta alkohola lotzen dira askotan. Hala ere, ikerketen arabera, %5,6 bakarrik dira alkohol muga gaindituta gidatzeko gertu azaltzen diren gazteak.



ARTXIBOA

Ohikoa da zirkulazio istripuak gazteekin lotzea.

LOTSABARIK/ Maite Muguruza

“Edozergatik gorritzen naiz”

AINTZANE IRIZAR

Gurekin ere gorritu da, baina ez ei da lotsagatik izaten; edozergatik gorritzen da, eta hori ez zaio batere gustatzen. Lagunekin irtetea eta kirola ditu gogoko, eta faltsukeriak amorratu egiten du.

• Txikitari, zer izan nahi zenuen?

Gauza asko; badakizu, txikitari hainbeste ideia edukitzen dira buruan!

• Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zeure burua?

Espero dut egingo ditudan ikasketekin lotutako zerbaitetan lanean, eta beharbada ezkondu-

ta egongo naiz. Auskalo!

• Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriz?

Langilea eta formala izateko.

• Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.

Egia esan, ez daukat taktikarik; nahiko formala naiz eta ez naute kontrolatzen. Ez diet sekula niganako konfiantza galtzeko arrazoirik eman.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Familiari, lagunei eta ikasketei.

• Zure bertute bat?

Alaia naizela.

• Eta hutsune bat?

Segituan gorritzen naiz, edozergatik; ez da lotsagatik izaten.

Eta egia esan, hori ez zait batere gustatzen.

• Zerk amorratzen zaitu?

Faltsukeriak; nire lepotik gaizki esaka ibiltzen direnak.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Tokatu zaidanarekin konformatu beharko dut; ez nago oso gustura, baina...

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Aurpegiari, begiei, batik batik.

• Zer egiten duzu seduzitzeko?

Ezer ere ez.


• Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?

Uf! Horri ez diot erantzungo; gainera, amak ere esan dit horrelakorik ez kontatzeko.



ADINA: 17 urte • IKASKETAK: Batxilergoko bigarren maila • ZALETASUNAK: Kirola eta lagunekin irtetea
LIBURU BAT: 'Ostegunak', Jon Arretxerena • FILM BAT: 'Yo soy Sam' • MUSIKA TALDEA: Ken7 • KIROL TALDEA: Reala

TIRABIRAKA/ Joseba Lasa



ZAHARRENETXETIK

San Joxepe elkartearen ereserkia, Miguel González Bastidaren eta Markos Labaienen arteko lankidetzaz

EDU MENDIBIL

Herriko beste elkarte askok bezala, San Joxepe erretiratuen elkarteak ere ereserkia dauka dagoeneko. Miguel González Bastidak musika jarri die Markos Labaienek idatzitako bertsoei.

San Joxepeko abesbatzak Udal Musika Bandarekin batera urriaren 20an emandako kontzertuan aurkeztu zuten ereserkia. Miguel González Bastidak eta Markos Labaienek egindakoa da. Markos Labaienek azaldu digun moduan, "Miguel eta biok, hileta-elizkizunen ondoren-eta, txikiteoan ibiltzen gara elkarrekin, eta lagun artean sortu zen ereserkia egiteko ideia. Ni banenbilen aspalditik San Joxepeko abesbatzarrendako zerbaitegiteko asmoarekin, eta Natalio Juaristik halako baten zera esan zidan: 'Hik bertsoak egin biok eta Miguelek musikia ipini'. Eta hala izan da: bertsoak prestatu nituen eta Miguelek musika egin zuen gero".

Miguel González Bastidak esperientzia luzea du ereserkiak konposatzen. Udal Musika Bandako eta Bergarako Orfeoiko zuzendaria izan zen urtetan eta,



Markos Labaien eta Miguel González Bastida.

besteak beste, Bergara KEren ereserkia, Umore Ona elkartearena eta Santa Marinari eskainitakoa landu ditu. Horrez gain, kalejira askoren egilea izan da. Miguelen

hitzetan, "Markosen bertsoak asko gustatu zitzaizkidan, eta testuan oinarrituta hasi nintzen lanean. Lehenbiziko ideia ohean nagoela etortzen zait, eta gero

San Joxepeko ereserkia

Hitzak: Markos Labaien

San Joxepeko aiton amonak buruarekin pentsatuz alaitasuna falta ez dadin gure amore eta kantuz, holako gauzak politak dira bizimodua hobetuz azkenian bat lortu degula himno polit hau abestuz

Berrogeita hamar lagun inguru aritzen gara kantuan, saio batzuek eginaz denok gauzak jarriaz puntuan, zuzendariak esan duena ederki hartuz kontuan eta ondoren jarriaz denak bakoitza bere lekuan

paperean idazten hasten naiz. Bandarekin jo beharreko ereserki-martxa polita da". Biek ere bandako eta abesbatzako kideei esker eman nahi dizkiete.

San Joxepeko talde honetan zerbaite falta zan buruan, egun batian zerbaite pentsatzen hau hartu nuen goguan, abesti polita eta ederrak hasiko gara kantuan, horretarako berak esaten digu nola ibili munduan

San Joxepeko abesbatza honetan baditugu gure planak, entsaio eta gure ekintzak egiten ditugu danak, maixu jator bat badegu eta harek esandako lanak, oso gustora egiten denok zuzendarian esanak

Abesti polita eta eder bat aitonentzako jakina hemen dagoen alaitasunak ematen baitu jardina, bihotz bihotzez eskeina da orain arteko haundiña, azkenean hau izan dadila San Joxepentzako egina

Oraingoz, aurkezpen egunean bakarrik jo dute martxa, eta, beste martxa batzuekin gertatu izan den moduan, kaxoi barruan ahaztuta geratzeko beldur da Miguel.



San Joxepekoak, Enkarterrietara

San Joxepeko datorren eguaztenean, hilaren 26an, Enkarterrietara joateko irteera antolatu du. 60 lagunek eman dute izena. Irteera 09:00etan izango da, beheko estazioetik, eta, besteak beste, Zalla, Sopuerta (argazkian) eta Balmaseda bisitatuko dituzte. Balmasedako Koltiza jate-txean bazkalduko dute, eta, herrira bueltan, Durangon paradatxoa egingo dute.

HERRIKO ETXEA

Eguneko menua+kafea: **6,95** euro
Gaueko menua: **7,00** euro

Eta pintxoak **0,70** euro!

Zatoz!

Bidekurutzeta 23 BERGARA Tel. 943 76 55 23

 DEBA
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Oxirondo Elgetakoa zen, Bergararekin bat egin zuen arte.
Ze urtetan gertatu zen hori: 1348an, 1448an ala 1548an?

GALDEDEBALDE

1.

Nor da *Eraztunen Jauna* filmeko soinu bandaren egilea?

- A/ J. Barry.
- B/ H. Shore.
- C/ G. Rossini.

2.

San Joxepeko ereserkia bi laguneren artean egin dute. Zeintzuk?

- A/ González Bastida eta Zabaleta.
- B/ González Bastida eta Labaien.
- C/ González Bastida eta Zabaleta.

3.

Nor da BKEko senior mailako saskibaloitaldeko entrenatzailea?

- A/ Iker Barbero.
- B/ David Urbina.
- C/ Ramon Conde.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

IGOR MOLANOrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Igor! Aurreko asteko galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Simon Arrieta plazan / Galde debalde: 1-A, 2-C, 3-C.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Milka txokolate barra

125 g + 25 g doan

0,69 €

115 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



PINTOREBERGARARRAKGAUR


Ricardo Otaño

EDU MENDIBIL

Gasteizen jaio zen, 1921ean, baina bere burua bergarartzat du. Txikitan hasi zen lumatxozen marrazten, eta bere kabuz ikasi zuen: "Lumatxoa zergatik? Bada, hasieratik gustatu zitzaidalako. Arrazoi beragatik nago urtetan nire andrearekin...", diosku umorez. Herriko txoko gehienak marraztu ditu zehaztasun handiz. Bergarako Udalerako lan ugari egin ditu eta herriko elkarte gehienetan ere Ricardo Otañok egindako lanak daude zintzilikatuta. Erretratuak baino gehiago, paisaiak marraztu izan ditu, Euskal Herrikoak eta kanpokoak: "Familiakoendako erretratuak egin ditut, baina nahiago dut jauregiak, elizak, eta horrelakoak marraztea. Balio artistikoaz gain, eraikina zaharra izatea baloratzen dut, horrek errespetua sorrarazten didalako. Gaurko eraikin berriak, berriz, delineatzaileendako aproposagoak dira".

Egunotan, San Donatoko basilika marrazten dabil. Egunero goizean goiz marrazteko ohitura dauka, eta epe laburrean herriko bederatzia jauregiaren puzzle moduko bat egin nahi duela esan digu.

"Balio artistikoaz gain, marraztutako eraikina zaharra izatea baloratzen dut"



E.M.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



San Pedro 21 | Ibargarai 44-46
BERGARA | BERGARA
943 76 20 49 | 943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

AGOITZ
tapiz
denda

Leizariako
San Lorentzo, 25
BERGARA
Tel.: 649 112 675



POL-POL
Taberna

943 76 07 78. Bergara



BERGARA
Uxue Agiriano
Otsailaren 23an 2 urte.
Urte askotarako eta
muxu bat! Etxekoak.



ABERGARA
Leire Manso
Otsailaren 21ean 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Nora García
Otsailaren 22an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Julen Osinaga
Otsailaren 22an urtebete.
Urte askotarako!
Aitaxo, amatxo eta Iker.



BERGARA
Marian Etxezarreta
Otsailaren 21ean 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Irene Larrañaga
Otsailaren 26an 11 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Asier Lenisoro
Otsailaren 26an 28 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



BERGARA
Maialen Odriozola
Otsailaren 24an 11 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Nerea.



BERGARA
Eider Moncayola
Otsailaren 21ean 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak, Ibon eta Julen.



BERGARA
Mikel Edroso
Otsailaren 28an 6 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Maria.



BERGARA
Amaia Etxeberriarteun
22an 26 urte. Zorionak!
Mikel, Asier eta etxekoak.




BERGARA
Aitor De Benito
Otsailaren 24an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Mikel Agirre
Otsailaren 23an 7 urte.
Urte askotarako!
Kuebas Agirre familiakoak.



BERGARA
Maddi Iñarra
Otsailaren 24an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Aitor Alberdi
Otsailaren 23an 3 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Olatz.



BERGARA
Iñaki Iagrtua
Otsailaren 25ean 12 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



ELGETA
Mari Jesus Mujika
Otsailaren 26an 39 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



ELGETA
Iker Markiegi
Otsailaren 22an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



ELGETA
Sebastiana Atorrasagsti
Otsailaren 24an 82 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ELGETA
Iban Arantzabal
Otsailaren 21ean 28
urte. Zorionak! 28. orrira
heldu haiz! Lagunak.



BERGARA
Julen Rodríguez
Otsailaren 25ean 6 urte.
Zorionak! Gurasoak
eta Andoni anaia.



BERGARA
Xabier Labaka
Otsailaren 24an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Martxel Belategi
Otsailaren 27an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Naiara Luarizaristi
Otsailaren 19an 15 urte.
Zorionak! Koadrilakoak
eta mutil berezi bat.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAREN agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12

TELEIXA
BILTEGIAK

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tf. 943 76 27 93

ile
apaindegia

edertze gela

disdira

Masterreka, 7. BERGARA
Tf. 943 76 00 55

ezpeleta
Ostalaritzarako
ehungintza

Ostalaritza eta
egoitzetarako
mahai-zapi eta
industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77
Tf. eta faxa: 943 76 17 09

Ganbarara
TABERNA

Heure erara
ibiltzeko!

Irala z/g.
BERGARA
Tel. 943 76 55 75

ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman) Zurradero 6, behea. 943 76 70 67, sakelakoa: 607 48 71 19

ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13

ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko al baitari ofiziala) 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13

IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA Isabel Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN Victor Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23

ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Arañzadi 1. 943 76 02 46

ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behea. 943 76 27 95

BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77

GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88

CAVIGLIA Silvana S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54

IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65

TRIPALDI Enrike Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76

ERREHABILITAZIO FISIKOA

LOPEZ DE MUNAIN Francisco J. Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

FISIOTERAPEUTAK

ARZAK Miren (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

BASTERRETXE, Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

HOMEOPATA

GANUZA Susana Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

MASAILARIAK

AZPEITIA Iruñe Ibargarai 44, behea. 943 76 73 43

CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78

ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behea. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

BENITO Isabel Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62

MEDIKUNTZA OROKORRA

OXIRONDO KONTSULTATEGIA Boni Laskurain 2, behea. 943 76 20 50

PODOLOGOAK

ALTUBE Edurne Simon Arrieta 2. 943 76 07 84

AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

GALLASTEGI Pablo San Martin Plaza 2, 1-ek. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80

URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13

ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

YOGA

SAMADHI YOGA Masterreka 13, behea. 943 76 11 38, sakelakoa: 639 235 753

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko otsailaren 21a / 147. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Haur Hezkuntzako ziklo osoa eskatuko diote Jaurlaritzari

AINZANE IRIZAR

Eusko Jaurlaritzak 0 eta 3 urte bitartekoen Haur Hezkuntza arautzen duen dekretua indarrean jarri berri du. Hori dela eta, Antzuolako Herri Ikastetxeak zera eskatuko dio Jaurlaritzari: Haur Hezkuntzako ziklo osoa jaso eta ziurta dezala Antzuolan.

Horixe jakinarazi zion Herri Ikastetxeko zuzendariak Udalari, azkeneko osoko bilkuran aurkeztutako idatzi baten bitartez. Jakinarazpen horrekin batera, bere laguntza ere eskatu zion Udalari. Osoko bilkura horretan, udalbatzak aho batez erabaki zuen Herri Ikastetxeari bere laguntza ematea, Hezkuntza Sailko ordezkarien aurrean egin behar diren kudeaketa lanetan.

Jaurlaritzak emango duen hurrengo urratsa izango da Haur Hezkuntzaren mapa egitea; mapa horretan aurrez ikusiko dute zein herri eta ibarretan dagoen zerbitzua jartzeko beharra.

BATZORDEA OSATUKO DUTE


Herri Ikastetxeko arduradunek azaldu digutenez, zerbitzuaren gaia lantzeko batzorde bat osatuko dute. Izan ere, lan handia dago egiteko, eta euren esanetan, beharrezkoa da irakasle, aditu eta gurasoen ikuspuntuak jaso eta elkarrekin lan egitea.

Batzorde hori osatzeko lehen-dabiziko urratsak eman dituzte dagoeneko; hainbat irakasle izendatu dituzte batzorde horretan lan egiteko, eta gurasoekin hasi dira hartu-emanak izaten.

Alde batetik, azpiegituraren kontua aztertu beharko du batzorde horrek; izan ere, Jaurlaritzaren dekretuak gutxienezko baldintza batzuk ezartzen ditu egoitzei dagokienez. Aukera izatekotan, haurtzaindegia non jarri aztertu beharko dute. Bestalde, Hezkuntza Sailarekin etengabeko harremana izan beharko du batzorde horrek, prozesu burokratikoaz arduratu beharko du.

ZERBITZUAREN FUNTZIONAMENDUA

Azkenik, eta hauxe da punturik garrantzitsuen ikastetxeko ardu-



ARTXIBOA

Gero eta zerbitzu gehiago dago Antzuolan; aurtengo ikasturtean, esaterako, jantokia estreinatu dute Herri Ikastetxean.

radunen ustez, 0 eta 3 urte bitartekoen zerbitzuaren funtzionamendua aztertu beharko du batzorde horrek. Puntu honetan, batez ere, oso garrantzitsua izan-

go da batzordeko kide guztien ikuspuntua kontuan hartzea.

Ikastetxeko irakasleen esanetan, "adin kritikoak dira ume txiki horienak, eta kontu handiz

aztertu beharreko gaia da haurtzaindegia". Adituen esanetan, umeak eskolan ordu gehiegi pasatzea ez da batere komenigarria.

Pausoka gurasoen elkarteak inkesta egin zuen

Herri Ikastetxeko gurasoen elkarteak, Pausokak, aspalditik darabil herrian haurtzaindegi edo zaintza zerbitzua jartzeko ideia. Izan ere, zerbitzu horren beharra eta hutsunea ikusten dute herrian. Beste ezertan hasi aurretik, baina, inkesta bat egitea pentsatu zuten, ume txikiak dituzten gurasoek gai horren gainean duten iritzia ezagutzeko.

Gauzak horrela, ikasturte hasieran, iazko urrian, 0 eta 3 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoen artean inkesta bat banatu zuten Pausokako kideek. 60 gurasoren artean, hain zuzen ere, egin zuten aipatutako inkesta hori. Bertan, hainbat galdera egin zizkieten gurasoei,

hala nola: ea euren umeak haurtzaindegi-
ra eramango lituzketen eta zaintza zerbitzurik erabiliko luketen.

Inkesta horretako emaitzen arabera, guraso guztiek ikusten dute beharrezkoa herrian haurtzaindegia edo zaintza zerbitzua jartzea. Gainera, inkestatutako guraso gehienek erabiliko lituzkete aipatutako zerbitzu horiek.

Emaitza horiek ikusita, beraz, badirudi Antzuola herri txikia izanik ere, gero eta zerbitzu gehiago behar dituen herria dela, edo hala eskatzen dutela, behintzat, herritar askok. Urrutirago joan barik, hor daukagu, esaterako, aurtengo ikasturtean estreinatu den eskolako jantoki zerbitzua.

LABUR

Aralar alderdiak aurkezpena egingo du eguenean

Datorren asteko eguenean, hilaren 27an, bere proiektuaren aurkezpena egingo du Antzuolan Aralar alderdiak. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan egingo dute aurkezpena, 19:30ean; Juan Martin Elexpuru eta Mikel Basabe Aralarko kideak izango dira hizlariak.

Aurkezpen horren helburua da, alderdiaren proiektua bera herritarrei aurkeztea gainera, Aralar alderdiaren talde bat osatzea Antzuolan bertan.

Herriko Paleta Txapelketan izena emateko aukera

Urtero moduan, Paleta Txapelketa antolatzen dihardute Olalde pilota elkarteak. Martxoaren 3ra arte egingo da Paleta Txapelketan izena emateko aukera, 10 euro ordainduta. Horretarako, Olaldeko kideengana jo dezakezue; Juan Tomas Erostege, Juan Simon Aristi, Josu Zabalo edo Balendin Zabalorengeana, hain zuzen ere. Bi mailatan jokatu da Paleta Txapelketa, eta parte hartzeko, 15 urte baino gehiago eduki beharko da.

Egubakoitzean ospatuko dituzte Inauteriak umeek

Datorren asteko egubakoitzean, hilaren 28an, ospatuko dituzte Inauteriak herriko umeek. Egun horretan mozturrotuta joango dira eskolara eta hurrengo aste osoa jai izango dute. Egubakoitz arratsaldean, 16:00ak aldera, txokolate eta torrada jana izango dute Zurrategin; horren ondoren, 17:00ak inguruan, Zirko Tripiaren emanaldia ikusteko aukera izango dute Zurrategi plazan bertan. Eguraldi txarra egiten badu, frontoian egingo dituzte ekitaldi horiek.

ANTZUOLA HERRIA IKERKETA BEKA

Herriko ohitura zaharren gaineko liburua aurkeztuko dute domekan

AINZANE IRIZAR

Domeka eguerdian aurkeztuko du Iñigo Ramírez de Okariz historiagileak *Bizitza pasarteak Antzuolan* liburua. Aurkezpen horrekin lotuta, baserriarren jantzien erakusketa egongo da ikusgai Olanen etxean, oraingo eta datorren asteburuetan.

Mezaren ostean aurkeztuko dute liburua, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Hantxe egongo dira Iñigo Ramírez de Okariz bera, Mireia Unamuno Antzuolako alkatea eta Kultura batzordeko Josune Irizar.

BIZITZA PASARTEAK AZTERGAI

XX. mendeko ohiturak aztertzen ditu Iñigok liburu horretan, 1900. urtetik 1960. urtera artekoak, hain justu ere. Liburuaren lehen zatian, garai hartako Antzuola zelakoa zen azaltzen digu; orduko Antzuolaren deskribapena egiten digu, biztanleriari, ekonomiari eta beste hainbat arlori dagokienez. Hortik aurrerakoak, berriz, bizitza pasarteetan oinarritzen ditu: jaiotzaren eta



Datozen bi asteburuotan egongo da Olanen baserriarren jantzien erakusketa.

bataioaren gaineko ohiturak, haurtzarokoak, eskolakoak, umeen jolasen gainekoak, ezkontzetakoak eta heriotzaren gaineko kontuak aztertu ditu, besteak beste.

Liburuaren aurkezpenarekin lotuta, baserriarren antzinako jantzien erakusketa antolatu du Udalak. Oraingo asteburuan eta hurrengoan egongo da ikusgai, Olanen etxean, ohiko ordutegian.

HERRI EKIMENA

Plataforma berria aurkeztuko dute

AINZANE IRIZAR

Herriaren plataforma berria osatu dute, ezker abertzalearen ideiak defendituko dituztena, hain zuzen ere. Bihar, zapatua, aurkeztuko dute plataforma hori, Herriko Plazan, 13:00etan. Aurkezpenarekin lotuta, kalejira eta luncha ere antolatu dituzte.

Plataforma horri, gainera, izen berezia jarri diote, ekimenaren bultzatzaileek adierazi digutenez. Hitz-jokoa erabili dute plataformaren izena osatzeko, baina zapatu eguerdira arte itxaron beharko dugu izena jakiteko. Halaxe nahi izan dute plataformako kideek.

HIRU PUNTUTAN OINARRITUTA

Plataformako kideek azaldu digutenez, ezker abertzalearen ideiak defendatzeko sortu dute herriaren plataforma hori. Ezker abertzalearen inguruko hainbat herritar elkartu dira plataforma osatzeko, maila pertsonalean, betiere.

Plataformaren lana eta nondik norakoak zehaztuko dituz-

ten helburuak ere finkatu dituzte plataformako kideek, hiru puntu oinarri hartuta.

Zapatuko aurkezpen ekitaldian azalduko duten moduan, "autodeterminazio eskubidearen alde" egingo du talde horrek. Horrekin lotuta, Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeke duen eskubidea aldarrikatzen dute eta Udalbiltzarekiko euren konpromisoa azaltzen dute.

Bestetik, "baldintza demokratikoen alde" lan egingo du, "eskubide guztiak errespetatuko diren etorkizun berria erakitzeke konpromisoarekin".

Azkenik, ezkerreko ikuspuntutik, "herritarren bizi baldintzak hobetzearen alde" lan egingo dute, besteak beste, "Euskal Herriarendako esparru ekonomiko propioa lortzeko bidean urrats berriak" emanaz.

Plataformaren oinarrietako batzuk besterik ez da hemen azalduko hauek. Zapatuko aurkezpenarekin, baina, zabalago azalduko dituzte plataformaren helburu eta oinarriak. Hala, nahi duen guztia dago aurkezpenarekin eta plataforman pate hartzera.

HERRITARREN HITZA / Usoa Agirre · Ikaslea

Zer da GOITB???!?!?

KONTUOLA irakurtzen ari nintzela iragarki batek kerakarra zuen nire begirada. Honako hau zioen: "Antzuolaren gainean berbetan, Mireia Unamuno alkatea GOITBn". Xelebrea iruditu zitzaidan; ezagutzen ez nuen telebista batean, gure herriko alkatea berbetan, hau gauza arraroa! Saioa ikusteko irrika sortu zitzaidan bat-batean, eta hor hasi nintzen telebista aparatuekin borrokan, ditzosozko GOITB hori sintonizatu nahian. Alferrrik baina. Telebista aparatuen edo antenaren arazoa izango zela

pentsatu nuen; izan ere, KONTUOLA-n horrela iragarritz gero, antzuolarrok ikusteko izango da ba, ezta? Teilatura igo eta antena alde batera eta bestera mugitzen hasi nintzen. Ez zuen ez giro ederra egiten hor goian, baina ni neurearekin. Hor aritu nintzen ia antena puskatu beharrean. Baina alferrrik. Guztiz etsi gabe, lagun bati deitu nion. GOITB zer ote zen



"Zergatik ezin dugu antzuolarrok GOITB ikusi?"

galdetu orduko barre algaraka hasi zitzaidan. Niri aurpegira barrez, alajaina! "Ziur al zaude ez dakizula?", galdetu zidan ironiaz. Munduko pertsonarik ezjakienena nintzela sentitu nuen. "Badakit! Parabolikoa beharko da!". Hori bururatu orduko argitu zidan zalantza lagunak. GOITB Debagoieneko telebista ei da (Antzuola bailara

horretan dago, ez bazenekiten ere). 2000. urtean sortu zen eta Antzuolako Udalak diruz laguntzen du, bailarako gainontzeko herriko udalekin batera. Sortu zenean oihartzun handia izan ei zuen telebistak, baina Antzuolan ere. Baina, nola gogoratuko nintzen, bada, orain dela hiru urteko albiste batekin? Izan ere, Antzuolan albiste soilean geratu zen gertakizuna. Bailarako herri gehienetan ikusten da, baina Antzuolan ez. Hasieran nuena baino zalantza handiagoa sortu zait: zergatik ezin dugu antzuolarrok GOITB ikusi?

KIROLA

PARTIDUAK

PILOTA

Zapatua, otsailak 22 (Udaberri Saria)
17:30: Olalde-Landare (Nag. paletaz)
Antzuolako pilotalekuan


EMAITZAK

FUTBOLA

Antzuola 4 Urki 1 (2. erreg.)
Amara Berri 2 Antzuola 4 (Gazteak)

PILOTA

Gipuzkoako Kluben Arteko Txap.
Olalde-Murumendi (Infant)... 18-15
Udaberri Saria
Eibar-Olalde (nag. eskuz) ... 5-22
Oiangui-Olalde (nag. paletaz) ... 35-13



Z Zabalo Iturgintza S.L.
Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea, 10. Antzuola. Tf. 943 78 71 78
Erakusketa: Kalebarren, 1. Antzuola. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu



Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003ko otsailaren 21a / 131. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Elgeta Auzolanian plataforma, plazara

OXEL EROSTARBE

Ezkertiar eta abertzalez ostatutako plataforma bat aurkeztuko dute bihar arratsaldean plazan. Ibarreko gainerako herri guztietan moduan, Gernikako deialdiaren ondorio da plataforma. Elgetako plataformari Elgeta Auzolanian izena jarri diote.

Bihar, 17:30ean, Elgetako ezker-tiar eta abertzaleen plataforma bat aurkeztuko dute plazan. Eki-taldia jai giroan ospatuko dute, eta txalaparta, lurcha, musika, eta abar egongo dira. Aurkezpenaren ondoren, taldea bultzatzen dutenek argazkia aterako dute plazan bertan.

Debagoieneko gainerako herrietan moduan, Gernikako deialdiaren ondorio da herri plata-forma. Aurkezpenean zera esango dute: "Gure erantzunik onena gure herria eraikitzea izango da, euskararen alde eginez, gure kultura eta izaera bultzatuta. Eta Euskal Herria eraikitzen gure herritik hasiko gara, Elgeta euskaldunagoaren alde eginez, ingurumena kontuan izango duen etorkizuna bultzatuta. Elgeta ezkerretik eraiki nahi dugu, auzolanean".

AUZOLANA BULTZATZEKO NAHIA

Auzolanean hitzetik hartu dute herri plataformaren izenburua. Plataformaren asmoa, hainbat ekintza aurrera eramateko, herri-tarren artean auzolana berreskuratzeko da: "Denon laguntzarekin Euskal Herriaren ohitura zahar hau berreskuratu nahi dugu, globalizazioaren garai haueetan gazteak antolatu eta auzolanean ekimenak bultzatuta, edo gure mendiak garbitzera koa-drilan joanda... Eta etorkizunean zelako Elgeta nahi dugun herritarrok erabakiko dugu, denon parte-hartzearekin".

HAUTESKUNDEETAN PRESENTZIA

Herri plataformatik adierazi dutenez: "Herri Batasuna, Euskal Herritarrok eta Batasuna ilegalizatzeko bidean egon arren, lehenagoko ideiek gurekin jarraitzen dute. Ideia horiek aurrera eramateko antolatu beharra dago, eta horretarako sortu dugu plata-forma". Aurkezpenaren ostean batzarrak egingo dituzte, plataformaren jarduera zehazteko: "Lan egiten jarraituko dugu, taldeekin berba eginez. Hauteskundeak ere hor daude, eta hel-du egin behar. Aurkezten lagako diguten ez dakigun arren, programak gertatzen hasiko gara".

HIRIGINTZA

Frontoi zaharra egokituko dute


OXEL EROSTARBE

Azken hilabeteotan, eskola gainerako gela handia erabili izan dute eskolako umeek jolastoki estali moduan. Gela hori nahiko egokia den arren, aspaldi eskatu zuten Guraso Elkarteak kanpoko jolastokian estalita egongo litza-tekeen gunea. Hala, Udalak eta Patronatuak frontoi zaharra egokitze-ko akordioa egin dute. Frontoi- toia egokitze-ko lanek 2.404 euro-ko aurrekontua dute. Udalaren

asmoa da martxo hasieran has-tea lanekin. Frontoi zaharraren eta eskolaren arteko bidea ere orduan egokituko dute. Aste San-tua aurretik umeendako jolasto-ki estalia gertu egongo delakoan daude.

ZIBURU BERRIAK JOLASTOKIAN

Eskolako jolastokian ziburu berriak jarri dituzte. Kontua da eguraldi oneko egun batzuk egin arte ezin dutela ziburuen azpian jartzten den lurra ipini.



Frontoi zaharra eta eskola arteko bidea ere egokituko dute martxoan.

HERRITARREN HITZA / Geaxi Ezpeleta • Ikaslea

Asko dakagu ikasteko, baiña iñor gutxi erakusteko

Egixa esan, pasatu dira miñutu batzuk zeri buruz idatzi pentsatzen hasi naixenetik. Gai asko etorri jataz burura, mundu osuan eragiña edukitzen dagon gerrian kontutik hasitta, horrenbeste denbora eta esfortzu eskaintzen dotsagun gaztetxeraiño. Eta hementxe nago, orri zuri baten parian, boligrafua eskuan hartuta eta barruan tristuria zabaltzen doiala sentitzen. Tristuria zergaittik? Arrazoi asko eta bakarragaittik, usteldutako gizarte batian bizi garalako.

Tristuria zergaittik? Horren zibilizauak eta aurrerratuak

garan hemen garaixan, herri bakoitzak beren botuekin aukeratu-tako gobernuak, millaka pertsona hiltzeko prest dagozelako eta gaiñera, hontaz harro sentitzen diralako.

Tristuria zergaittik? Berdinta-suna eguneroko gauza bat izan biharko zanian, ez dagolako holakorik.

Tristuria zergaittik? Komu-nikabidien indar manipulatzai-



"Ustelkerixan bizi gara, ikustia nahi ez daban gizarte batian"

Ustelkerixan murgilduta bizi gara, ikusten ez daben edo hobeto esanda, ikustia

lle ikaragarrixaan aurrian, gehiengo bat manipulaten lagatzen dalako. Ez dalako gai pentsatze-ko, komunikabidie-tako egixa munduan bizi dan egittik bereizten.

Tristuria zergaittik? Honi galderion erantzuten jarraitu ahal izango nuke, lerro askotan, arrazoiz arrazoi.

nahi ez daban gizarte batian.

Askotan entzuten da gaztiok pasota batzuk gazela. Gure buruaz aparte, gauza oso oso gutxi importatuz dozkuela. Onartu egiñ bihar dot, kasu askotan holan da. Baiña gaur egunian bizi dan egoerian errudunak ez gara gu, ez aldatzianak igual bai. Aldatzen hasteko indarra dakagula, izan leike. Baiña, nahiko arazo haundi bat behintzat badakagu, asko dakagu ikasteko eta iñor gutxi erakusteko.

Tristuria zergaittik? Jarri bost miñutu pentsatzen eta egin hori galderioi zure buruai.

LABUR

Arau subsidiarioei alegazioak egingo dizkie Mayak

Maya ingurumen taldekoek alegazioak egingo dizkiete datorren zortzi urteei begira Udalak aurkeztutako arau subsidiarioei. Alegazio nagusia Debagoieneko PTPak onartu bitartean Elgetako arau subsidiarioak ez onartzea da. Izan ere, Elgetako arauak oraindik onartu barik dauden Debagoieneko arauetan oinarritzen dira. Alegazio hori garrantzitsua dela-eta, herri-ko gainerako elkarteekin batzekoak dira Mayakoak, alegazio hori elkarte guztien izenean egitea garrantzitsua ikusten dute-eta.

Egingo dituzten beste alegazio batzuk hauek dira: anten-dako toki konkretu bat zehaztea, uren saneamendua hobetzea, Larragibelzearra landa moduan edukitzea, eta Uruburuko sektorean etxe kopurua gutxitzea.

Bestalde, martxotik aurrera eta Mankomunitatea kar-gu egin arte, Udalak hartuko du erabilitako olio batzeko ardura. Bi urtean eskaera hori egin dute Mayakoek. Udalak ardura hori hartu duen arte, eurek jaso izan dute erabilt-tako olio.

Gaztetxekuek batzar orokorra egingo dabe gaur

Batzar orokorrian bi puntua nagusin inguruan jardungo dabe: batetik, otsailaren 21ko gaztetxian izan zan lapurketa tian eta horren inguruan egiten ahal danan gaiñian; eta bestetik, momentuan batzarraren batzen diranek gaztetxian bizi izan dittuen esperientziak gaiñian (oztopuak, proiektuak, batzarretik kanpoko gaztetxiakiko jarrera...).

Batzar orokorra gaur izango da, 21:30ian, gaztetxian. Gaur egun gaztetxeko batzar-rrian darenek hara juateko deia egin dotse gaztetxian kiko interesa daukenei. Hor-taz, gaztetxian batuko dira gaur herriko gazte gehienak.

JARDUNABALKOITTIK



Oxel Erostarbe

*Iraken ez!
Hemen...*

Euskaldunok, mundutarrok... gorrek entzuteko moduan esan dogu, ez dogula Iraken aurkako gerrarik gura. Eta hori, Saddam Sharon besteko genozidia dala (galdetu bestela kurduei eta palestinarrei). Arma salerosketiak, gerriak beste ardura dosta. Izan be, gerrian alde ala kontra agertu, herrialde aurreratuak gara munduan zihar arma kontrabanduan dihardugunak.

Gerrian kontuakin pekatuan dihardutenak espainiar inperialistak dira. Euskal terroristei kontra egiteko faboriak lortziarren, aitta santuak gerrian gainian esandakuei kasoik be ez dotse egin. Euskaldunon kontrako gerran, pekatua be zillegi izango da. Eta torturia, eta ilegalizaziñua, eta dispersiñua, eta gizurra, eta autodeterminaziño eskubide eza, eta... eta ETA.

Gurian be gerran dihardue eta ez dauka amaitzeko trazaik. Udaltzain bat hil dabela, preso bat hospitalian dagola... Iraken aurkako gerria, gure izenian ez egitteko argi esan dogu. Gure gerran, gure izenian, edo honezkero auskalo zeñien izenian diharduanei be berdiña: gure izenian ez! Askatasuna bai herrixantzako eta baita herriitar danontzako.

KULTURA


'KK' antzezlanana aurkeztuko dute

O.E.

Kultura batzordeak antolatuta, Markeliñek *KK* kale antzerkia estreinatuko du Elgetan domekan. Umeendako zein nagusien dako egokia den kale antzerkia plazan egingo dute, 13:00etan. Markeliñe taldeko antzezlan gehienetan moduan, *KK* antzezlanean ere ez dira falta izango ironia, kómikotasuna, elementuen erabilera eta ezustekoak.

Kale garbitzaile baten, musikari baten eta ume baten gaineko istorioa kontatuko digu oraingoan Markeliñek. Kale garbitzailea eta musikaria zakarrontzi baten ume bat dagoela ohartuko dira. Ume horren gurusoak topatzen, umeari pixoihalak aldatzen eta zakarrarekin jostailuak egiten jardungo dute.

Hortaz, antzerkia gustuko dutenek hitzordu garrantzitsua dute domeka eguerdian Markeliñe antzerki taldearekin.



Lehenago ere etorri izan dira Elgetara Markeliñekoak.

EGAN ETORRIKO DA JAIETAN

Bestalde, aurtengo Ferixa Nagusietako egitaraua zehazten dihardu Jai batzordeak. Eta dagoeneko aurreratu digute plazan izango ditugun bi musika talde-

ren izenak: eguenean Akelarre eta barikuan Egan. Egitarau osoa lehenbailehen zehaztu nahi dute. Horretarako, hurrengo batzarra eguaztenean egingo dute (hilak 26), udaletxean, 21:00etan.



San Valentin eguneko dantzaldixa

Herriko erretiratuak San Valentin eguna zala-eta Espaloian antolatutako dantzaldixan giro paregabia egon zan. Lehenagoko kantuak eta azkenaldixan modan darenak entzun eta dantzatzeko aukeria euki zebeñ hara gerturatutakuak. Erretiratuak sasoi betian darella erakutsi zebeñ dantzaldixan. Ia hurrenguan beste adin batzuetako jentia be animatzen dan./O.E.

LABUR

Debagoieneko zirkuituko Pilota Txapelketa Elgetan

Debagoieneko kirol zerbitzuek federatu barik dauden pilotariendako Pilota Txapelketa antolatu dute. Txapelketa Elgetan jokatu da, martxoa eta maiatza bitartean. Txapelketan parte hartu gura dutenek martxoaren 4a baino lehen kirol zerbitzuetan eman behar dute izena.

Debagoieneko kirol zerbitzuetako abonatuak 12 euro ordaindu behar dute txapelketan parte hartzeko eta gainerakoek, berriz, 15 euro. Lehenengo hiru postuetan amaitzen dutenei emango dizkiete sariak.

Txapelketa lau t'erdia barruan eta binaka jokatu da. Lehenengo fasea ligaxka erara jokatu da. Eta lehenengo laurke finalerdiak jokatuko dituzte gero.

IRAKURLIAREN TXOKUA

UDAL AURREKONTUAK DIRELA ETA

Elgetako Udalak onartu duen aurrekontua benetan kezkarria iruditzen zait. Nire kontuetan badira bi gai koadratzen ez dutenak:

1.- Inbertsioetan azken bost urteetan gastatu den beste gastatzea aurreikusten da aurten.

2.- Gastu korrontea, hau da, urtero ezinbestean gastatu beharrekoa, sarrerak baino handiago da.

Jasotzen dena baino gehiago gastatzen da urtero:

13.500.000 pta. ordaindu beharreko maileguak kontuan izan gabe.

30.000.000 pta. maileguen interes eta amortizazioak kontuan izanez gero (hala ere, kontuan izan barik aurtengo inbertsioek sortuko dituzten gastu finkoak). Aurtengo inbertsioak, 401.946.549 pta. dira guztira. 1998tik 2002ra 382.744.205 pta. izan ziren guztira.

Norbaitek ziurta dezake inbertsio hauek bideragarriak direla? Eta onurak baino arazoak ez dizkigutela sortuko? Epe Luzera ez bada ere, aurreikusita dago sarrerak gehitzea edo gastuak murriztea? kontuan izan dira inbertsio berriek sortuko dituzten gastuak? Zergak handituko dira?

Ez zaidalako oso bidezkoa iruditzen sarrerak lortzeko "saldotan" eraiki beharra izatea, lur guztia porlanez bete arte. Eta ez nuke amaitu nahi beste zifra bat aipatu barik, liburutegiko liburu eta aldizkariak erosteko 622,05 euroak, ehun mila pezeta inguru, huskeria bat dira kulturak duen aurrekonturako.

Norbaitek erantzungo didalakoan...

EDURNE ALBERDI



RECYDE, S.A.

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es



ER-0182/2/95

ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949



Jesus Mari Montiel
**ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK**

Artekale 3
Mo: 656783299 Eibar
Tel: 943 70 07 19

**KONPONKETAK
SUKALDE
ETA BAINUGELETAN**

**DEPILAZIOA
LASER BIDEZ**

Erizaina: Sonia Simón
OLT: Iratxe Aiarzagena
Medikua: Gabriel Hernández

**SAIOA ARANZABAL MASAJEAK
ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean**

Kiromasajea • Reflexologia • Hidromasajea • Kirol masajea • Solariuma • Drenaje linfatikoa • Algekin eginiko estalkia

Dei ezazu **646 50 00 29** telefonora ordua eskatzeko

ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

Bergara KEko
eskubalo
taldea, 1978

Bergara KEko eskubalo saila 1978-79 denboraldian sortu zen. Sasoi hartan, senior mailako taldeak San Martin plazan jokatzen zituen etxeko partiduak eta entrenamenduak Institutuko gimnasioan eta Arrasaten egiten zituen. Legazpiko eta Arrasateko taldeetan jardundako Pedro Garmendiaren eta Alvaro Espartzaren ekimeneri esker sortu zen taldea, eta Garmendia bera zen entrenatzailea. 17 eta 27 urte arteko gazteek osatzen zuten taldea. Hasieran larri ibili ziren arren, laster maila ona azaldu zuten.

Zutik, ezkerretik hasita: Alfredo Manso, Fernando Fernández, Jose Antonio Arriola, Juan Carlos Gutiérrez, Iñaki Mendibil, Alvaro Espartza, Aitor Goiti eta Martin García.

Makurtuta: Jesús Rodríguez, Iñaki Jauregi, Pedro Garmendia, Benito Cantero, Josean Azpeitia, Pedro Durana eta Antonio Sánchez.

Argazkia: Claudio García.



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatorz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

BERGARA

Ikerlekuko
pasabidea

Ikerleku eta Ibargarai arteko pasabidea asko aldatu da, 90eko hamarkadaren erdialdean Ibargarain etxebizitza berriak eraikitzen hasi zirenetik, batez ere. Garajeak eta lantegiak zeuden lekuan etxebizitzak egin dituzte, eta inguruak erabateko itxuraldaketa izan du azken urteotan. Etxebizitzak egiten ziharduten bitartean pasabide txikia zegoen, geroago handitu eta txukundu zutena.



≈ 1993

Ikerlekutik Ibargarai hiribidera jaisteko behin-behineko pasabidea jarri zuten etxebizitzetako lanek iraun zuten bitartean.



2003

Inguru erabat aldatu da. Justo Garate plaza-ko etxebizitzaren ondoan espaloi ederra dago, baita berdegune batzuk ere.



Zumelaga

JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



Manufacturas LARRAÑAGA

LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

Eskularruak: larruzkoak, lonazkoak, nitrilozkoak eta PVCzkoak • Polainak: larruzkoak • Amantalak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Mangitoak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Txanoak: lonazkoak eta skay-zkoak • Segurtasuneko oinetakoak • Entzumen-babesa eta begi-babesa • Soldatzaileendako aurpegirako babesa • Maskarak • Lunbalgiarako gerrikoak eta faxak • Hotzaren kontrako parkak • PVCzko trajeak • Soldatzaileendako larruzko jakak (3/4) • Lanerako arropa • Hotzaren kontrako txalekoak • Eta abar.

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.

Etixerako ederrena, Zanguitun

Eskulan eta arte ederretako produktuak ere baditugu!



**%20ko
deskontua
etxerako
pinturetan**

**Koloreak
sortzeko
makina**
Paretetarako,
zorurako,
altzariak
margotzeko...

ZANGUITU margoak

Irala z/g. BERGARA.
Tel.: 943 76 19 54.

IRU margoak

Araba etorbidea 3. ARRASATE.
Tel.: 943 79 11 71.

Parket flotatzailea* Sintasola* Moketak*
Paper pintatuak

*Salmenta eta etxean ipintzea.



deco-tex ZANGUITU alfonbrak

Herri lagunak 4. BERGARA.
Tel.: 943 76 08 69.

Alfonbrak Alfonbrak neurrira Funda nordikoak
Edredoiak Kortinak Toailak Izarak

Oilaskoak

egubakoitzetan eta zapatuetan

BERRIA

- Entsalada + oilaskoa: **10,82 euro**
- Entsalada + oilasko erdia: **5,41 euro**

Sagardotegiko menua

BERRIA

- Bakailao tortilla
- Entsalada mistoa
- Txuleta zaharrarena
- Etxean egindako postreak
- Sagardoa

21,00 euro

AGIRREBEÑA JATETXEA

Maiatzera arteko ordutegia: **07:00etatik 21:00etara**



90 lagunendako janlekua • Eguneko eta asteburuko menuak eta karta • Etxeko postreak • Asteburuetan, mariskoa eta arraina, aldezturik eskatuta

Ibarra kalea 2, Bergara. Telefono BERRIA: 943 76 21 45.

GREMIOEN GIDA

zure etxearen osasun onerako

ARREGI AROZTEGIA



Urteaga 20
943 76 11 73
Erakusketa:
Bidekurutzeta 38
943 76 31 03

- Orotariko arotz lanak
- Sukaldeak
- PVC leihoak



AGIRRE MARGOAK

Ortuibar 1, 3-C
943 76 53 82
Tailerra:
Alkabieta 7

- Orotariko pintaketa lanak

UGARTE AROZTEGIA-ALTZARIAK

San Juan 1 A
943 76 54 91
F 943 76 08 04

- Orotariko arotz lanak
- Apainketa, soruak, leihoak, atek



El izarra elektrizitatea

Zubieta 10
943 76 54 10
943 76 19 99
943 76 10 60

- Orotariko instalazio elektrikoak



Informatika aholkulariak

Eguzki auzoa
5, behea
ANTZUOLA
943 76 65 13
F 943 76 65 14

- Gremio guztietarako programazioa
- Ekipo osoa instalatuko dizugu



Manufacturas AFA-BI, S.L.

S. Lorentzo z/g
943 76 50 92
943 76 21 59
F 943 76 02 65

- PVC
- Aluminioa
- Veka sistema

GOYSMA

Urteaga 9
943 76 98 12
615 76 77 95
615 76 77 96

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa

BERGARA Margoak

Amillaga 1, 1. pab.
162 p.k.
943 76 97 31
F 943 76 97 32
bergara.margoak@terra.es

- Orotariko pintaketa lanak
- K-21 agiria

